

# ...eta **kitto!**

740 zkia. 2010-XI-12

ASTEKARIA

TOKIKOM



DEKRETU BERRIAREN AURREAN

# Ehiztariak espazio bila



## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

### KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajak, industiak...
- Jaurtizaren dirulaguntzen transmisioa

### AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

C/Industria 1-10 - 48960  
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 17 70  
Email: [komunitate@kein.com](mailto:komunitate@kein.com)

Murillo doktorea,  
Madrilgo unibertsitatean  
aho-inplantologian masterra  
eta Espainiako Inplante El-  
kartean implantologia  
aurreratua diplomatura  
eskuratzeaz gain, Nueva Yor-  
keko Unibertsitateko  
Kliniketan sarritan  
jardundakoa da. Bere  
ibilbide profesionalen 4.500  
inplantetik gora ipini ditu,  
%95'7ko arrakastarekin.

Pazienteei protesiak  
ipintzeko hainbat aukera  
daukagu. Portzelana edo  
akrilikoz egindako  
**BEHIN-BETIKO PROTESIEN**  
eta **PROTESI ERAUZGARRI**  
akrilikoen arteko bereizketa  
egiten dugu.

- Behin-betiko protesiak  
ahotik kendu ezin  
daitezkeenak dira.
- Protesi erauzgarriak  
inplanteekin josita  
daudenak dira, horrela  
ez mugitzeko.



#### PROTESI MOTAK

**Portzelanazko edo  
zirkoniozko behin-betiko  
hortzetako zorroak:** material  
onenak emaitza onenekin.

1. Natural eta estetikoak,  
hortza ezin hobeto  
imitatzen du.
2. %100 biobateragarria.  
Ez du inolako hanturarik  
sortzen ahoan.
3. Puntako teknologiako  
materialak: portzelana  
eta zirkonioa.
4. Inplanteak ale  
bakarrekoak izan  
daitezke, bikoak  
(gutxienez) zubiak  
egiteko edo 8 inplante  
erabili ditzazkeguko  
maxilarra zein  
masailezurra oso-osorik  
birgaitzeko.
5. Berme osoarekin.

**Behin-betiko protesi  
hibridoak:** behin-betiko  
protesia izatearen  
konfidantza. Berririo  
segurtasunez mastekatzeko.

#### Protesiak: BEHIN-BETIKO ZORROAK



# IRAZABAL

## clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

## Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duelako

### GURE PAZIENTEETAN LORTUTAKO EMAITZAK erakusten dizkizugu




**ANTONIO MURILLO** doktorea



**AINHOA ZULUETA** doktorea


## Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hartz Kliniketan

#### Protesiak: HORTZERI-GAINEKOA



1. Hortzoian edo hezurreen  
galera handia dagoen  
kasuetarako  
gomendagarria.
2. Hortz guztiak falta  
direnean. Bakarrik  
6 inplanteekin goiko  
maxilarraren edo  
masailezuraren  
**BEHIN-BETIKO** ortzeria  
ipiniko dizugu.
3. Hortzeria akrilikoa da  
kalitate handiko hortzekin  
eta ahosabairik gabe.
4. Berme osoarekin.

**Hortzeri-gainekoa:** ordezko  
hortzeriak ez dira beste  
inoiz mugituko; pasta  
eta itsasgarriak betirako  
baztertzeke.



1. Kalitate handiko  
akrilikozko ordezko  
hortzeria da,  
hortz-inplanteekin  
josten dena.



#### NOLA IPINTZEN DITUGU INPLANTEAK?

Ahaztu mina. Ohiko inplante  
batek 5 minutu irauten digu.  
Anestesia lokala erabiltzen  
dugu, enpasteetan moduan.

**Hortz-erauzketaren ondoren  
ipinitako inplanteak:** hortza  
ateratzen den egun berean  
ipintzen ditugu inplanteak.  
Orbaintze-denborak laburtu  
egiten ditugu. Tratamendua  
lehenago amaitzen da.

**Kirurgia gabeko inplanteak:**  
hezurraren egoera

#### Inplanteak: KIRURGIA GABEKOAK



2. Protesia ez da  
kulunkatzen ezta  
mugitzen ere hitz egitean  
edo mastekatzean.
3. 3 segundotan kendu  
dezakegu garbitzeko.
4. Ordezko hortzeria izanda,  
berau mugitzen  
zaionarendako aproposa.
5. Kasuaren arabera,  
bakarrik 2 edo 4 inplante  
ipini beharko ditugu  
inplanteekin egindako  
hortzeria osoa batean.
6. Berme osoarekin.

ezinhobea bada, inplanteak  
puntuak eman barik ipini  
daitezke. Ebakuntza ostekoa  
perfektua da, hantura  
eta minik barikoa.

**Berehalako karga:**  
behin-betiko hortzeria  
inplanteak ipintzen ditugun  
egun beretik. Ez dago  
itxaron beharrik.

**Aukera guzti hauek  
eta gehiago eskaintzen  
dizugu Irazabal  
Hartz Kliniketan.  
KONTSULTATU LASAI.**

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea

20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALA:**

J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GOSIAK EREGITA EGON.-** Oso gose izan. "Gosiak eregita gelditu giñan, Munitibarrera heldu biaoño lehen".

**GOSIAK HIL BIHARRIAN EGON.-** Oso gose izan. "Gosiak hil biharrian heldu giñan ostatura".

**GORAKO LARRIXAK.-** Gonbitu larria. "Ikustiaz batera, gorako larrixak emon deste".

## ESKUTITZAK

### OROZKO-TELLERIA FAMELIXAREN ESKER ONA

Orozko sendiak Pedro Palacini eta joan zen bariakatu gauean Coliseoan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie publikoki.

Bagenekien, ekitaldi hunkigarria izateaz gain, ondo egindakoa izango zela; baina, egia esateko, espero genuena baino gehiago harritu gintuen. Arreta handia zegoela nabari zen, ilusioa eta entsegu ordu asko, gaur egun gero eta urriagoa den aisialdi denborari ostutakoa. Pozarren eta hunkituta gaude tamaina horretako ekitaldi baten bitartez Jose Ramon omendu zutelako.

Jose Ramon eibartarra izateaz harro zegoen eta, edonon, hiriko enbaxadore lana egin zuen. Ez gaitu harritzen barixakuan eibartarrez osatutako talde bategi, Pedro Palacini buruan zela, gauzak bikain egiteko gaitasuna erakutsi izana. Egun horretatik aurrera, Orozko sendiak ezin izango du Jose Ramon gogoratu Coliseoan parte hartu zuten guztiak oroitu gabe.

Bihotzez, eskerrik asko.

OROZKO-TELLERIA SENDIA

### ZORIONAK, GOIENAI

1988an ikusi zuen argia estreinakoz Arrasate Presek. Proiektu berritzailea izan zen; herriko berri euskaraz emango zuen aldizkaria asmatu zuten AEDko -Arrasate Euskaldun Dezagun- euskaltzaleek. Eta doan zen, gainera. Baina proiektua ez zen interesgarria izan Arrasaterako bakarrik, eta inguruko herrietan ere perretxikoak moduan hasi ziren aldizkariak sortzen. Eta Debagoienan ez ezik, inguruko bailaretan ere jo zuen euskal aldizkariaren aldeko haizeak. Hala sortu ziren ...eta kitto!, Barren, Pil-pilean, Drogeteniturrri edo Berriketari aldizkariak.

Euskara elkarteon proiekturik arrakastatsuenak izan dira, behar bada, aldizkariak. Eta hasieran txikiak zirenak hazi egin ziren. Baina hazi ez ezik, aldatu ere egin dira, eta ibilbide horretan, Debagoienan aitzindaria izan zen berriz ere. Herrietako aldizkariak oroimenaren zakuan laga eta bailara mailako proiektua prestatzeari ekin zioten. Hala, 2000. urtean, Goiena proiektua sortu zuten. Multimedia proiektua zen, eta aldizkariarekin batera, telebista eta Internet ere jarri zituzten martxan.

10 urte pasa dira ordutik, eta haien bailarako proiektu komunikatibo garrantzitsuenak da Goiena gaur egun. Euskarak betetzen du, nagusiki, hain garrantzitsua den funtzioa: komunikazioarena. Bi aldizkari, telebista bat eta Internet daukate martxan, eta 50 langiletik gora egiten du lan bertan. Azaroaren 11n ospatu dute 10. urteurrena, eta zorionak eman nahi dizkiegu gure lagunei bailararen parte honetatik. Asko egin dute, eta ondo gainera, baina ezagutzen ditugu, eta badakigu ez direla horrekin konformatuko.

Eta gurean, zer? Gurean ere emankorra izan da herri aldizkariaren ibilbidea, baina ezin gara atzera begira geratu. Komunikabideen arloan aldaketa handiak izan dira, eta handiagoak izango dira, eta guri ere badakigu gure jarduna aztertu eta egokitzapenak planteatzea. Hasita gaude bailara mailako komunikazioa iristeko lehen pausoak ematen, eta datoen hilabeteetan ikerketa-lan bat egingo dugu proiektua egingarria den aztertzeke. Ikusiko dugu zer emango duen horrek denak, baina eronka argia da: Debabarrenean euskarazko hedabideen indarra eta eraginkortasuna biderkatzea.

DORLETA VIDAL (DROGETENITURRI), KOLDO MITXELENA (...ETA KITTO!), UNAI LARREATEGI (PIL-PILEAN), IMANOL LARRAÑAGA (BARREN) ETA KOLDO APERRIBAI (BERRIKETARI)

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Gaur egun interesak baloreak baino askoz garrantzitsuagoak dira; horregatik, dirua da erreferentzia nagusia, konpetibitatea edo berrikuntza deitzen badiote ere. Sasoi bateko ekonomian, gizakien beharrei zelan erantzun ikertzen zen; orain, bestalde, lehenengo produktua egiten di-

ra eta, ondoren, beharrak sortu. Kontsumitzaile izateko hezitzen gaituzte, ez beste ezertarako; horregatik nago bide bazterrean, mundua bere aldeetik doan neurrian. Mugikorra erosiko dut berarekin komuna dakarranean, orduan"

Jose Luis Sampedro, ekonomilaria eta idazlea



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Enrike Zuazua

## Bost

**B**a ote dute zenbakiek euren izaera edota bizitza propiorik? Azter dezagun 5 zenbakia, adibidez. 5 zenbaki bat baino ez da, baina ezin dezakegu ahaztu zenbakiak gizakiaren eraikin intelektuak handienetako bat direnik. Gauza sinpleak aztertu eta kudeatzeko sortu baziren ere, egun gizartearen oinarri sendotako bat dira: garraioan, eraikuntzan, ekonomian, medikuntzan... eta abarretan.

Eta, zenbakien artean, gizakiarekin zerikusi gehien duenetakoa da bost-a. Bost behatz ditugu oinetan eta beste hainbeste atzamar esku bakoitzean. Bost dira gure zentzumenak. Loreen atalak, munduko erlijio joera nagusiak edota naturako elementuak ere bost dira. Bosnaka zenbatzea errazagoa zaigu eta seguru hori esku bakoitzean bost atzamar ditugulako dela. Izan ere, antzinako Greziako Protagoras de Abdera jakintsuak ordurako esaten zuen *“gauza guztien neurria gizakia zela”*.

Bost dira olimpiadetako eraztunak. Pentagonoa bezalako eraikin ospetsu batek bost alde eta bost solairu ditu. Iruñeko alde zaharreko bost hormek ere pentagonoa osatzen dute. Pentagono txikiak bata bestearen alboan jarriz gero, hainbesteko grina pizten duen esfera borobila lortzen da: futboleko baloia, alegia. Eliza zaharretako zenbaki erromatarrek ikusita, ohartzeko gara zein erosoak eta erabilgarriak diren gaur egun erabiltzen ditugun dezimalak. 5 V zen lehena eta, horretara iristeko, mendeetan zehar landu da matematika, zibilizazio eta herri antzietan barrena.

Lehen bost urterekin joaten ginen eskolara aurrenekoz. Egun, aitzitik, badira bost hilabeteko umetxoak haurtzaindegietan. Musikan ere pentagrama erabiltzen dugu. Bost-a zenbaki orekatua da, bide erdian dago, zero-hamar bitartean, nahikotasuna eta oreka adieraziz. Zenbaki demokratikoa dugu bosta. Baita harroa, alaia, bizia, argia, askea, ausarta... ere.

Nork zioen zenbakiek ez zutela bere nortasun propiorik? Hitz bera ere euskaraz berezia eta polita da, borobila oso: bost. *“Bost axola”* diogu euskaraz, euskaldunok gogoko ez ditugun hainbat gauzari uko egiteko orduan. Eta une hauetan gure gizartearen ez zaizkigu falta bizkarra emateko gogoia ematen duten zenbait joera. Baina *“bost axola”* esan beharrean, aurre egin beharko dizkiegu gure etorkizunaren jabe izan nahi badugu. Edozein kasutan, *“bost”* entzun ondoren, isiltzeko gogoia sentitzen dugu. Beraz: Bost!

## Memoria Eguna gurian be ospatu zan

**EGUAZTENIAN EAE-KO HAINBAT ETA HAINBAT HIRITTAN LEHENENGOZ OSPATU ZAN MEMORIA EGUNA**, erakundien arteko akordixuari jarraituta eta Eibarrek be bat egin eban, udaletxeko patixuan egindako ekitaldixa antolatuta: Aralar taldiak ez eze, Udaleko beste alderdi politikuak adostu eta siñatutako idatzixa irakorri eban Miguel de los Toyos alkatiak, patixuan terrorismuaren biktimak gogoratzeko plakaren azpizan lora-eskintza egin eta jarraixan.



Udaletxeko patixuan egin zan ekitaldixa. / SILBIA HERNANDEZ

## Gipuzkuako Merkatarixak Zuloagari omenaldixa

**GIPUZKOAKO MERKATARIEN ELKARTEAK IGNAZIO ZULOAGA MARGOLARIXARI OMENALDIXA EGIN ZETSEN** aurreko barixakuan, alkatiak Eibarren dakan buleguan (Untzaga, 7)

eta, horretarako 1945ian Zuloaga hil zanian bere omenez argittara emon eben sello bildumaren fotografixekin egindako erreprodukziñua aurkeztu eben, bestiak beste Maria Rosa Suárez margolarixaren loiba, Fernando Amunarriz Merkatarien Elkarteko zuzendarixa eta Miguel de los Toyos alkatiak alartu zittuan ekitaldixak. Lau metro luze dittuan muralian hainbat lan ezaguni eskindutako selluen irudixak ikusi leikez: *“La casa del botero de Lerma”*, *“Duquesa de Alba”*, *“Juan Belmonte”*, *“Autorretrato de Ignacio Zuloaga”*, *“Condesa de Noailles”*, *“Mi tío Daniel”*, *“Pablo Uranga”* eta *“Catedral de Segovia”*.



## Ibaialde erakusketia udaletxeko patixuan

**GURE ERREKIARI BURUZKO ERAKUSKETIA HARTUKO DAU UDALETXEKO PATIXUAK HILLAREN 18-RA ARTE:** *“Ibaialde”* izenburuko erakusketia herrikeri herri dihardu ingurumenaren babesa eta garapen jasangarrixaren gaiñeko konzientzia piztu nahixan eta Eibarrera Udaleko Ingurumen atalaren eskutik aillgau da. Erretrato eta testuekin osatutako 9 panelak udaletxixa zabalik dagan bi tartian nahi dabenak ikusteko moduan ipiñi dittue.



## Juan de los Toyos-en liburua

**UNTZAGAN SOZIALISTEN EGOITZA DAN EIBARKO HERRIKO ETXETAK** (*“CASA DEL PUEBLO”*) sortu zala 94 urte betetzen dirala ospatzeko antolatu dittuen ekitaldixen barruan, atzo arratsaldian *“Juan de los Toyos González, biografía de un pequeño gran hombre”* liburua presentau eben. Aurkezpen ekitaldixan, bestiak beste, Raúl Arza Vélez liburua argittara emon daben Juan de los Toyos Fundaziñoiko presidentiak eta Miguel de los Toyos alkatiak eta Juanen loibiak hartu eben parte.





Marisol Arrillaga eta beste hiru akordeoilari Sagardo Egunion. / SILBIA HERNANDEZ

## Gabonetarako akordeoi bila

**URTEROKO MODUAN, JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKUAK KONZERTU BEREZIXA** antolatu nahi dabe Gabonen bueltan. Aurten, baiña, akordeoi taldetxo bat batzia gustauko litxakixela aditzera emon desku instrumento horretako irakaslia dan Marisol Arrillagak: "Asmua da gaur egunian di-

ttugun ikasliekin eta ikasle izandakuekin taldia osatzia, kontzertuaren aitzakixarekin bide batez euren arteko hartuemona sendotzeko eta instrumentuari beldurra kentzeko. *Joko dittugun partiturak oso errezak izango dira*". Animatzen dan jendiak eskolara bertara jo leike informaziño billa.




## Padro Zelaia Memoriala

**URTE BIKO ETENALDIXAREN OSTIAN, AURTEN ATZERA BE KOPINEN TONBOLIA** ipiñiko dabe martxan azaruaren 19xan, "beti be Eibar eta beste herri batzuetako dendarixak eskindutako laguntasunari esker". Zozketatzen diran kopiñetako batzuk janzteke dagoz eta, horregaittik, josten dakixeneri dei berezixa

egin nahi detse. Horrekin batera, garatzeko bidian duguazzen herrixetan laguntzen daben eibartarrekin kontaktuan ipiñi nahi dira, batutako dirua holarako proiektuetarako emoten dabelako. Kontakturako telefonuak 943702761 (M<sup>a</sup> Luz Rodríguez), 943701514 (M<sup>a</sup> Angeles Sudupe) eta 943203987 (Arrate) dira.

# anzorik anzo



## Urkiko aldapa mekanikua martxan

**Jose Antonio Iturrioz kalia aldapada mekanikua inaugurau eben aurreko asteburuan**, herriko auzuetarako akzesu mekanikuak ipintzeko Udalak dittuan asmueri jarraituta. Urki auzuan, ikastetxeraiño doian aldaparen maldia "leundu" nahi izan dabe holan, beste auzo batzuetan eskillara zeñ aldapa mekanikuekin aurretik egindakuaeren bidetik. Martxan ipiñi barri daben aldapiaren obria pagatzeko 291.038 euro erabili dira.

Honezkero Eibarren martxan duguazzen dispositibo mekanikuak 34 tramo osatzen dabe eta, bere sasoian onartu eben planak jasotakua betetzeko oindiok be beste sei tramo gehixago martxan ipintzia falta da. Falta diranen artian, Jardiñeta kalia, Ignazio Zuloaga institutuaren aldameneko eskillarak dagoz, baiña honezkero hasitta dagoz eskillara mekanikuak ipiñi ahal izateko biharrak. Akzesibilidadia hobetu nahixan martxan ipiñittako planari jarraituta, eskillara zeñ aldapa mekanikuak ipintzen 10 milioi euro gastau dittu Udalak.

## eibar kaleka

### Matsaria kalia

Eibarko antziñako estiluari jarraituta, etxiak eta tailarrak alkarrekin hartzen dittuan kalietako bat da Matsaria, izenekua. Mandiola balleko erreketako batek eta han inguruan egon zan basarrietako batek be Matsaria izenarekin ezagutu dittugu.

**Pegora kopurua: 5.**

**Erroldatutakoak: 42**



asteko  
780.000  
datua

euro erabiliko ditue Gabonetan Kultura Bonoa sustatzeko: musikia, literatura eta horrelakua erostian, 25 eurotan salduko dabena bonua erabili ezker, 40 euroko balixoko produktuak erosteko aukeria eukiko dau nahi dabena.

## autuan

### KONTUZ 50 EUROKO BILLETIEKIN

Aste honetan 50 euroko billetekin kontuz ibiltzeko abisua emon dabe Udalekuak, herriko denda batian itxura oneko gizonezko gazte batek billete faltsuarekin pagau ebalako. Falsifikaziua oso ondo egindakua da eta hologramia eta ur-markak be badittu. Halanda be, papela piskat fiñagua da eta seguridade-harixa falta jako.

### KALIDADIA ETA BIKAITASUNA

Kalidadiaren eta bikaintasunaren XVI. Europako Astiaren barruan, Armeria Eskolako Ikase Ohien Elkarteak, Euskalitekin batera, "Pertsonengan (benetan) sinestuz" izenburuko ekitaldixa antolatatu dau. Azaruaren 18xan 11.00etan hasiko dan ekitaldixan, bestiak beste, Alberdi Mekanizatuak enpresaren esperientzia bertako zuzendarixa dan Aitzol Alberdiren ahotik ezagutzeko aukeria izango da. Euskeraz emongo dabena hitzaldixa enpresa txiki eta ertainendako egokixa da eta izena emoteko 943203146 telefonora (Txaro Leal) deittu edo aaa@armeriaeskola.com helbidera idatzi leike.

## Magosto eta Gaztañerre jaixak

URTE SASOI HONETAN OHIKUA DAN MODUAN, GAZTAÑAK PROTAGONISTA izango dira gurian. Asteburuan, zapatu arratsaldian eta domeka goizian As Burgas Galiziako Etxekuak antolatuta gaztaña erriak salduko ditue Urkizuko parkian eta nahi dabena Ribeirow ardua edateko aukeria be eukiko dau. Salmentan batutako dirua Galiziako Etxeko Os Galaicos taldiarendako izango da.

Astelehenian, barriz, Gaztañerre ospatuko da gurian. Askok afari berezixak egingo ditue, baiña hortaz aparte, AEK euskaltegixak "Odra janak ta-



Gaztaña ugari jango ditugu egunotan herrixan. / MAIALEN BELAUSTEGI

bernaz taberna" antolatu dau: 19.00etan euskaltegi pareko Paloma tabernan ekingo detse kalejiriari, Agirrebeña trikitilari-

xak lagunduta eta bertso eta kopla artian afari-merixendia egitteko asmua dake, azken urtietako martxari jarraituta.



Boliviako tradiziño eta gastronomixia bertatik bertara ezagutuko dogu.

## Bolivia dantzan liburutegixan

### BOLIVIAKO DANTZA ERAKUSTALDIXA HARTUKO DAU LIBURUTEGIXAK GAUR ARRATSALDIAN,

17.00etatik 20.00etara, Munduko Paisaiak programaziñuari jarraituta. Bestiak beste, "caporales", "cueca", "morenada" eta "taquirari" modukoak erakutsiko ditue eta, horrekin batera, jantzi tradizionalen erakustaldixa, bideo baten proieksiñua eta Boliviako pintxuen dastaketia be egingo dira. Hillaren 18xan, barriz, 16.00etatik 20.00etara sukaldaritza taillarra egongo da martxan, txarrikumia laban eta Moqhonchiche freskagarrixa preparatzen ikasteko. Horrez gain, saltenak, sonsoa, quinua krocketak eta anticuchoak dastatzeko aukeria be egongo da. Eta kanpaiñarekin amaitzeko, azaruaren 19xan "Bestelako Bolivia ezagutuz" izenburuko mahai-ingurua egingo da, 18.30etatik aurrera eta jarraixan Boliviako pintxuak eskinduko ditue.

## Ikastolakuen bazkarixa



Iturbururen urteurrenien, 2003an egindako bazkarixak jende mordu bat eban be.

### JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAREN

### 50. URTEURRENAREN INGURUKO OSPAKIZUNEN HARIRA,

abenduaren 18xan bazkarixa egingo da Armeria Eskolan, 14.30xetan. Ikastolako guraso, ikasle ohi, irakasle, irakasle ohi eta bestelako bihargiñak (sukaldarixak, garbitzailiak...) alkartzia nahi dabe antolatzailliak. Juan nahi dabena abenduaren 3rako 30 euro sartu biharko ditte Euskadiko Kutxan 3035 0023 94 0231142214 kontu zenbakixan (dirua sartzian izen-abizenak ipiñi).

## “Kalitate-ziurtagiria bermea da jatetxea ezagutzen ez dutenentzat”

Salegi Jatetxea ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiria daukan Euskadiko 278 ostatu eta jatetxeetako bat da. Kalitatea eta zerbitzua ematea da bere helburua, eta mota askotako otorduak eskaintzen ditu Itziarko inguru zoragarrian. ‘Q’ kalitate-sistemaren alde egiteko arrazoiak galdetuta, osasun prebentziorako sistema ezarri beharra aipatu du Salegi jatetxeko nagusiak, baina nabarmenduz, era berean, antolaketan eta kudeaketan abantailak begi bistakoak izan direla.

**Zergatik erabaki zenuten turismo arloko kalitate-sistema batekin lan egiten?**

Osasun arloko ikuskeriak ohararazita hasi ginen kalitatearen bidea urratzen. Arriskuen Azterketa eta Kontrol Puntu Kritikoan (AAKPK) sistema eduki behar genuela esan zigun, eta ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak sistema hori bere baitan zuzela hagenekinez, bida horretarako urratsak ematea erabaki genuen.

**Zer da omura edo abantaila ekarri dizue ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak?**

Jada ezagutzen gaituztenentzat, ‘Q’ ziurtagiria edukitzea berez balore positiboa da, beste puntu bat gehiago nolabait esanda. Erreagunentzako berriz, hau da, gure jatetxea ezagutzen ez dutenentzako, berme bat da, ‘Q’ horrek adierazten duelako toki horretan antolaketa ona dagoela.

**Behin ziurtagiria ezarrita, zerin leian dira berriz hobekuntzak? Eta antolaketan? Kudeaketan? Azpiegiturretan?**

Egia esan ez dugu afektatu aipagaririk egin, lehen ere berdin samar antolatzen ginelako. Baina egia da orain gauza gehiago kontuan hartzen ditugula, gauza gehiago kontrolatzen ditugula, eta horrek sendotu egiten du antolaketa on bat. Eta antolaketa ona dagoen tokietan, zerbitzua ere hobea da.

**Hobekuntza hauek zeinek in galditzen da gusterago bezera?**



Esan duzun bezala jatetxean ez dugu aldi-keta aipagaririk egin, lehen bezala funtzionatzen dugu orain ere, eta ez nuke jakingo ezaten zerk eragiten duen gogobetetasana.

**Laburtu esaldi haur hutean kalitate ziurtagiriaren onurarik handiena.**

Antolaketa eta kontrola ziurtatzeko sistema bat da.

**Gomendatuko zenieke beste enpresariel kalitate ziurtagiriarekin lan egitea?**

**Zergatik?**

Bai, dudarik gabe. Ziurtagiria edukitzea, beraz, balore positiboa da bezeroentzat, eta atal guztiak kontrolatuta edukitzea laguntzen du.

**Uste duzu turismoaren ‘Q’ ziurtagiriak laguntzen duela enpresari lehiakortasunari begira?**

Bai, positibo den gustu zerbitzurako eta antolaketarako ona delako, eta, beraz, lehiakortasunago egiten duelako enpresa.

**Zer da, zure ustez, turismo-kalitatearen ‘Q’ ziurtagiriaren kudeaketaren barruan landutako gaitasun balagarriena edo garrantzitsuen?**

Esango nuke balagarriena eguneroko erosketan eta bilagiaran kontrola dela, hobeto antolatu daudelako, eta horrek abantailak dakartzelako, baina oro har, garrantzitsuenak da arlo guztiak kudeatzen laguntzen duela.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismoarako Euskal Agentziarekin batera, enpresarien esku jarri ditu lehiakortasunean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak. Adibidez:

**Jardunbide Egokien Egitasmoa.** Helburua da enpresarien profesionalizazioa hobetzea, eta helbura turistikoak gaitasun hobetuz. Euskadiko 325 establezimenduk dute Turismo Kalitatearekin Konpromisoa Agiria.

**Turismo Kalitatearen ‘Q’ egitasmoa.** Egitasmo honen bidez bezeroen gogobetetasana eta lehiakortasunaren bidezko diruak ziurtatzen dira. Euskadiko 278 ostatu eta jatetxeek dute ‘Q’ ziurtagiria.

**Bikaintasunaren EFQM Ereduen egitasmoa.** Egitasmo honen bidez kalitatearen bikaintasuna lortzeko bideak jartzen dira. Euskadiko 16 establezimendu parte hartzen ari dira.

**EUSKADI** *Goya egara*

Jarri Turismo Kalitatearen ‘Q’-a zure establezimenduan!



94 6077586

94 4047470

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)  
[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

**BASQUE TOUR**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**EUSKALIT**  
Egitasmoaren Eusko Jaurlaritzaren  
Partekatzearen bidezko proiektua

*Zientziaren Astearen aitzakiarekin ekitaldi ugari garatu dira egunotan EAEko hiri askotan eta gurean Gurutz Linazasoro neurologoaren hitzaldiaz gozatzeko aukera izan zen. Garunaren eta berari lotutako gaitzen ikerketari urteak eta urteak eskaini dizkon adituak Zientziaren Kutxaespazioak eta berak zuzentzen duen Inbiomed fundazioak elkarrekin garatzen diharduten proiektuari jarraituta eman zuen hitzaldia astelehenean. Portaleko aretoa bete zuen jende kopuruari begira, gaiak askoren interesa piztu zuen.*



## GURUTZ LINAZASORO:

# “Garuna bere osotasunean ezagutzeak gizaki hobekak izaten laguntzen digu”

### - **Gustora diharduzu zure beharrean?**

Gure lanbidean bokazioak tar- te handia betetzen du. Gainera, burmuinak eta gure jokabidearekin duen harremanak betidanik erakarri naute. Beraz, gauza biak elkarrekin ipini eta batzen baditugu, nire beharra oso gustokua izatea erraz uler daiteke.

### - **Noiztik diharduzu garunari buruzko ikerketak egiten?**

1984. urteaz geroztik dihardut ikerketa-esparru honetan behar- rean, beraz 25 urte baino gehia- go igaro dira hasi nintzenetik.

### - **Inbiomed izeneko fundazioa- ren presidentea ere bazara. Zer egiten duzue fundazioan? Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Kutxaren mezenazgoaren ba- bespean dagoen instituzio hone- tan zuzendari kargua betetzen dut eta bertan dihardugunon be- harra batez ere ikerkuntzari lotu- takoa da: oinarri-oinarrizkoak di- ren hiru esparrutan ikertzen jar- duten dugu, horretarako ama-ze- lulak erabilia. Funtsezkoak diren hiru esparru hoiak bularreko mi- nibiziari, Parkinson gaitzari eta miokardio-*infartuei* lotutakoak di- ra. Gaixoenganaino ahalik eta bizkorren ailegatzeko asmoari ja- rraituz egiten dugu beharra. Ho- rrekin batera, eguneroko jardune- an jasotzen goazen ezagutzari

esker gizartearentzat aberasta- suna sortzen joan nahi dugu. 2015. urterako nazioarteko mail- lan erreferentzia zentrua izan nahi dugu, hori da gure asmoa behintzat.

### - **Aste honetan Eibarren eman duzun hitzaldiaren izenburuak garunaren sekretu edo ezku- to aldeei egiten die erreferen- tzia, baina benetan, zenbat gau- za dakigu garunari buruz?**

Organo zoragarri eta harrigarri honen inguruko gure ezagutza egunetik egunera hazten doa, baina, hala ere, oraindik sekretu asko ezkutatzen dizkigu. Garuna funtzionamenduan ikusteko au- kera ematen digun teknologia es- kuratzen hasi gara eta, horri es- ker, orain arte guretzat arrotzak, misterioitsuak ziren hainbat gauza ulertzen hasi gara.

### - **Zuk zeuk Parkinson gaitzaren inguruan asko ikertu duzu eta oraindik ere horretan dihardu- zu. Inoiz gaixotasun horri trata- mendua ipini eta gaitza senda- tzeko gauza izango garela uste duzu?**

Parkinson-a bizitza-kalitateari eragin eta berau okerrerako alda- tzen duen gaitz degeneratiboa da, baina zorionez badira 40 urte sintomak tratatzeko sendagaiak erabiltzeko moduan gaudela. Eta urtero sendagai berriak merkatu-

ratzen dituzte. Sendagaiez apar- te, burmuina suspertzeko inplan- teak ezartzeko ebakuntzak ere hor daude. Egia da oraindik ere gauza asko geratzen dela egite- ke, baina ama-*zelulak* etorkizu- nerako aukera osatzen dute, agertzen doazen botika berrie- kin eta gene-*terapiarekin* batera. Ho- rregatik, etorkizunari esperantzaz begiratzen diot.

### - **Gure garuna osotasunean ezagutzeak hainbat gaixotasun saihesteko baliagarria izango litzateke?**

Hala da, hori da hain zuzen ere guk nahiko genukeena. Jasotzen goazen ezagutzari esker Alzhei- merra moduko gaixotasun izuga- rriak sendatzeko aukera eskaini- tzea eta gu geu gizaki hobekak izaten laguntzea da gure ilusioa.

**Zelula amak etorkizunerako aukera osatzen dute, botika berrie- kin eta gene-*terapiarekin***

### - **Zuk esana da: “Etorkizunak garunaren inguruko gauza asko ikasteko aukera emango digu”. Urrun al dago etorkizun hori?**

Garunaren irudiak lortzeko teknologia berrie- kin (erresonan-

tzia magnetikoetarako erabiltzen diren aparatu berri eta sofistika- tuekin edo positroi-emisio bidez- ko tomografiarekin) eta berriki erabiltzen hasi garen nanotek- nologiek eskura ipini dizkiguten beste teknikekin azkar egingo dugu aurrera. Baina garuna be- netan konplexua da eta, batzue- tan, konplexutasun horren hel- buru nagusia gure garuna %100 ezagutzera ailegatzeko modurik ez izatea dela pentsatzen dut, garuna osotasunean ezagutze- ak espezie modura daukagun nagusitasuna kolokan, arriskuan ipini lezakeelako. Edozein mo- dutan ere, teknologia mailako aurrerapenak baldintzatuko du garunaren inguruan izan deza- kegun jakintza.

### - **Astelehenean Eibarren eman zenuen hitzaldia, baina bestela ere, urtean zehar hitzaldi asko ematen dituzu?**

Inbiomed-eko zuzendaria nai- zenetik ilusioz betetzen nauen CI- TA Alzheimer izeneko ikerketa- proiektu garrantzitsuan buru-bela- rri dihardut beharrean eta, hori de- la eta, hitzaldi kopurua asko mu- rritu dut, gehienbat estatu mailan eman beharreko hitzaldiei begira. Aurten 50 bat hitzaldi emango di- tut urtea amaitu orduko, azken lauak Saudi Arabiako Neurozient- zien Elkartearen izango dira.




Españiako Erregistro Zibillaren lege proiektua aurrera ateratzen bada, hamendik aurrera aittaren apellidua ez dau lehentasunik izango gure artian. Neurri hori oin dala bost urte hartu eben Ipar Euskal Herrixan. Bestela be, gaur egun gurasuen esku dago amaren edo aittaren apellidua lehenestia; oingua beste neurri bat da.

## Zelan ikusten dozu abizenak alfabetikoki jartzia?



**JUAN GÓMEZ**  
50 urte  
informatikua

Ez dot ondo ikusten alfabetikoki ipintzia. Alfabetuaren erdittik aurreko abizenentzat diskriminatorya dala begittantzen jata. Beste modu batzuk be badagozela uste dot, hori baiño hobiak.




**CARMEN MARTÍNEZ**  
56 urte  
administrarixa

Ez desta ardura zeñena ipiñi lehenago. Ez dot txarto ikusten alfabetikoki ipintzia, modu horretan akordixo batera heltzen badira.


**AMAIA EGIA**  
50 urte  
bihargiña

Ez dakitt ba. Txarto ez dot ikusten: azken batian, gero politikuak erabagiko dabe eta horren arabera ipiñi beharko doguz abizenak.



**BORJA SARASKETA**  
17 urte  
ikaslia

Oin dagan moduan ondo ikusten dot. Oñ arte aittarena izan da lehelengua eta ez dot txarto ikusten holan jarraitzia.



**66553**  
...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkizu prentsa
- Bolintxo
- Zabaleta okindegia
- Narrua konplementuak
- San Andres gozotegia
- Askasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantzendenda
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutek fotokopiadenda
- Zubi-Gain kafetegia
- Bankoa
- Correos
- ...eta kitto!

**Loteria hartzaileen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da**

**IGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - beheko eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorioa eta Errozketa labea**

- Egoiberran (Signo poligonoan)
- Partikular, multzo eta oinguru etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urtumanoako eskelak
- Euskal Herri osoan ospitaleetan hartzen zaizugu
- Nazio eta Nazioarteko Inzalyoak

**Mugica Ehorzketa**

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

*Eusko Jaurlaritzak ehizaren lege-proiektua onartzeko prozesuan dihardu eta, behin Euskal Legebiltzarren oneritzia jasota eta legia onartuta, Diputaziñuen esku geratuko da hori betearaztia. Legegaixa idazteko, Diputaziño, sindikatu, ehiza federaziño eta talde ekologisten aportaziñuak jaso dira. Halanda be, seguridade tartiaren inguruan hainbat*

*desadostasun nabaritu dira azken aldixan: ENBA basarritarren sindikatuak Euskadiko Federaziñoko presidentiarekin berau 200 metrotan ipintzeko ahozko akordixua zala diñuan bittartian, ehiztarixak 100 metrokua ikusten dabe egokixagua eta nahikua. "200 metrokua onartzekotan, agur ehizari Gipuzkuan eta Bizkaian", diñue hōnek.*

**A**raban, Bizkaixan eta Gipuzkuan, ehun biztanletik bik ehizatzekeo permisua dake; Nafarruaren kasuan, lau ehun biztanleko; eta Iparraldian, bederatzira igo leike kopuru hori. Badago afiziñua. Halanda be, ehiztarixen inpresiñua da, batez be beste tokixekin konparatuta, "kastigu larregi" jasotzen dabela. Basarritarrak, oster, "ezin dirala kejav" uste dabe.

**Juan Antonio Sarasketa** Adecap-eko presidentiari bere onetik etarutzen dau segurtasun neurrixa 200 metrotan ipiñi biharra planteatziak berak: "100 metrokin nahikua da. Eskopetak erabiltzen dittugu, ez kañoiak; eta perdigoñi fiña, bederatzira edo hamarrekua. Hori 60 metrora baiño urrutirago ezin da heldu. Gaiñera, basarri eta jendia bizi dan tokixeri bizkarra emonda botatzen dogu".

Eibartarra izanda, berebiziko

garrantzixa emoten detsa gaxari, guri be horregaittik erantzuten deskula esanez: "Ez naiz alkarrizketa-zalia. Baiña Eibarrendako hil edo bizikua da, hamen egitten diran kirol arrendako. Proiektua 200 metrokua-ekin aurrera juanda, sektoriak traskilauta urtengo leuke". Gipuzkuan eta Bizkaixan ehiza desagertzeko arriskua ikusten dau Adecap-eko presidentiak: "Arabian desbardiña da, han ko-



## EHIZA DEKRETU BARRIXAREN AURRIAN


# Segurtasun eremuaren inguruko eztabaida

tuak-eta dagozelako eta terreno gehixago". Edozein borda, etxetxo edo txalet isolatu ezin dala basarri auzo bat moduan hartu diño berak: "Hori holan gure artian ez dago ehiztarixen-dako tokirik".

### Euskal ehiztarixa: ejenplua

Holan aurkezten eban Miguel Delibes idazle eta ehiztarixak hamengo ehiztarixa "El último coto" liburuan. Hor Euskal Herriko ehiztarixak biharra egitten ebalas esaten eban. Sarasketak be lerro berari eusten detsa: "Hamen ez dago kaza haundirik: akaso, eta kamisetia ondo izerdituta, bi-hiru oillagor eta beste hainbeste uso. Gertatzen dana da nohizbehinka tiro bat entzun eta gizartia segidan aztoratzen dala, errazegi". Arrateballen urte guztian bakotxak pare bat tiro-hots entzungo dabela diño Juan Antoniok. Eta onartzen dau jendiak pena hartzia animalixak hiltzerakuan, "baiña sentimenduekin ezin da juzgau. Bestela, ezingo genduan animalixarik jan be egingo".

Zentzuna eskatzen dau dekretua onartu aurretik: "Narbona Espaiñiako ministruak berak be



Juan Antonio Sarasketa, Adecap ehiztarixen %99 biltzen dittuan alkartiaren presidentia.

holan galdu eban-eta postua. Erasua da guk jasotzen doguna askotan eta ez gara gitxi: Donostian be manifestaziño haundixa egin genduan oin dala 21 urte eta han ikusi zan. Diman be 100.000 ehiztari ez da erraza batzia". Gauzak hain txarto ez dabela egingo diño berak, "Carlos III.a sarixa be emon deskunian. Holako sarixa ez dau edozeiñek jasotzen".

Usuen kontrapasarenak be ez dakala nondik heldu diño Adecap-eko presidentiak: "Zelan onartu leike gure komunidade bixetan 3.000 uso bakarrik bota ahal izatia, hamendik kanpo Espaiñian milloia botatzen dabenian? Horrek ez daka ez buru ez hankarik. Horregaittik jarraituko dogu borrokatzen arlo horretan be".

Oiñ arte 1970. urteko legedixa dago indarrian, "baiña zaharra izatiak ez dau esan nahi txarra danik derrigorrez. Eta eibartarri esaten detsuet: ehiza barik, zertarako bihar dittugu eskopetak?".

### Basarritarrak errespetu eske

"Aintxiña izan zan, baiña bai, gogoratzen dot, bentanan, taka, perdigoia". Besterik ez dala getau, baiña kasu hori bai gogoratzen dabela **Enrike Gisasolak**, "Sosola" basarrikuak. "Pribilegiuak moduan ikusten dittut ehiztarixak eta ez dot uste askorik kejav leikezenik". Halanda be, onartzen detse funtzio soziala bete dezaketela: "Erregulatzailiak izan leikez. Hamen ez gagoz Amazonian eta ez dogu autorregulatzeko sistemarik. Esaterako, orkatz eta basurde larregi dago inguruan".

Baiña hegazti eta txorixen inguruan, Gisasolak ez dau gauza bera pentsatzen: "Txori plagarik ez dago hamen, baiña euren gustokua da, gozau egitten dabe. Gaur egun uso eta oillagorren atzetik dabiz, lehen gehixago ehizatzen eben birigarrua eta zozua". Gaiñera, txorixak mesedia egitten detsela diño Enrikek: "Parasituekin amaitzeko egokixak dira eta zergaittik ezin dogu guk kudeatu gure basarri inguruak? Nekazaritza ekologikuare-

kin dihardugu eta Europatik be diru-laguntzak jasotzen dittugu guzti hori zaintziarren".

"Sosola"k aproposa ikusten dau kartela ipiñi ahal izatia be, bere terrenuan ehizarik ez egittek esanaz: "Holakuak errespetau egin biharko litxakez".

**Josu Gil** basarritarrarendako, "ehiza-sasoia igartzen da, bai, eta tiruak traba egitten deskue; batez be, ganaua eta basarritarrak ez diralako kontuan hartzen". Itxittako erromarak zabalik lagatzen dabela diño Gil-ek eta "ez pentsau sasixak garbitzen dabenik" jarraitzen dau.

Honek be ez dittu ehiztarixak guztiz kaltegarrixak ikusten, "baiña norabide egokixan bideratu biharko litzake euren jarduna. Basurdien eta orkatzen kasuan, hor bai ikusten dotela ekilibriko baten biharra, honek zuhaitz gaztiak zurittu egitten dabelako eta kalte ugari eragin". Halanda be, konbibentziaren alde egitten dau.

### Diana herriko soziedadia

Hor batzen dira gure herriko eta inguruetako ehiztarixak. Ehi-



Diana alkarteko azken txapelketian etaratako irudixa.

za eta arrantzako alkarre horrek 100 bat bazkide dittu, euretatik 60 bat ehiztarixak dira: "Elgetakuak eta Soralezkuak be badira, baiña gehixenak eibartarrak". Txapelketetan-eta hartzen dabe parte horietako batzuk: San Juan inguruan Arraten egitten dabe tiro-txapelketia eta julixuan txakurrekin muestriana, Olabeko zelaixan. Hortik kanpo, "eperrekin ehiza-txikiko txapelketak antolatzen dittugu: Dianari dagokixon barrukua eta, gero, Gipuzkua, Euskadi eta Espaiñiarako bidia emoten dabena", diño **Iñigo Gisasola** txapelketa asko irabazittakuak. Arlo horretan, berearekin batera azken urtiotan Ostiategi anaixak be nabarmendu dira, Juan Manuel Isasi eta Jose Luis Gisasola beterranuak eta beste asko.

Alkartekuak Espaiña osuan ehizatzen dabe asko -kotuak Burgos, Errioxa, Palentzia eta Sorian dake gehixenak- eta "baitta beste herrialde batzuetan be: Argentinan, Kroazian, Afrikan...".

Proiektu barrixaren inguruan,

"lehen be gauzak aldatzen juan dira eta neurrixan egin bihar dira. Eragozpen asko ipintzen deskue beti, gero eta kontrol haundixagua, arazorik apenas sortzen dittugunian", diño Gisasolak. Gauzak bere onetik etaratzen dirala diño Iñigok "baten bat -oso gitxi dira-eta- edurra dala aprobetxatuz, tiroka hasten danian; baiña gehixenak ez goiaz tirua botatziaren plazerraz. Txakurraren jokaeria ikustia askoz aberatsagua da, leku zoragarrixak ezagutzia, lagunak egittia... hori izerdi patsetan batzuetan, hotzez dardaraka beste batzuetan".

Distantziaren asuntuarekin garbi egitten dau berba Gisasolak: "Iñoiz ez dot ikusi kazari bat, piezia kobratziarren, etxe bati tiroka, edo bide printzipal baten... Pauta batzuk jartzia biharrezkua ikusten dot, baiña zentzuzko gauzekin. Neri aittak beti erakutsi desta, eskopetia hutsik eraman da be, iñori ez apuntatzia, kañoia beti goruntz, segurua jarritta. Segurtasuna kontuan beti!".



Txakurrekin ehizatzia dake gogokuen euskal ehiztarixak.

## FERNANDO AZKARATE TELLERIA

(2010eko azaroaren 7an hil zen, 77 urterekin)

**URAK DAKARRENA URAK DAROA  
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA**

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



## Zezenak aspertuta

**P**olitta eguan zezen-plazia arratsaldeko lau eta erdixetan, hainbeste gizonen artian Eibarko neska eder sortatuak nabarmentzen zirala. Nobillardaren buru Artamendi alkateordia eta Mujika eta Txurruka jaunak.

Kuadrillak plazia hustu eta gero, lehelengo iskuak urten ebanian, pe oiak erdipurdi jardun eben eta Rodríguez beroniketan nahastu egin zan, adarretatik esegitta geratu zan arte. Zezena be ez zan ikusmen haundikua eta banderilleruak ahal izan zebena egiñ eben. Iskuia hiltzia tokau zanian, toreadoria harrapau egiñ eban; segixan zazpi sastada, pare bat adarkada itzel, beste bi abisu eta, azkenian, zezena etzan eta asper-asper eginda, hill egin zan. Publikuak bistu-zaparrada galanta eskindu zetsan toreatzaillari.

Bigarren iskuia be otxan samarra izan zan, erraztasunik emoten ez dabenetakua. Halanda be, Delgado erreparorik barik harrapau eban; zalaparta handikua izan arren, ez zan ezer larririk gertau. Delantero erdi bat eta ziharkako beste bat bihar izan zittuan hiltzeko. Hirugarren iskuia estilo berekua izan zan: ahuntza emoten eban gehixago. Torea-tzailliak ezin berarekin ezer egin, banderilleruak be edozein modutan jardun eben. Iskuak padar gaiñetik hainbat bidar egiñ eban salto, torea-tzaillia bere atzetik plaza guztia ziharkatzen, paletilla bakotxian estoke bana ipiñiz, ikusliak xaxatzen eta, bai jendia eta baita iskuia be nekaneke eginda zegozenian, azken hau etzan egin zan. Txarrak eta txarrak arratsalde berian.



Untzaga eta Txaltxa-Zelaixaren bista orokorra 1965aren inguruan. Ezkerrian, Salon Teatro eta Bar Noche famosua egon ziran orubia ikusi leike. Euren gainian, goixan eta ezkerrean, Udal eskolia; eskumara, Falange Española Tradicionalistak (FET) eta Ofensiva Nacional Sindikalistako Juntak (JONS) okupau eben edifizia eta, eskumarago, aspaldiko Txantxa-Zelaiko frontoa. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK ARGAZKI FONDOA.

## XX. mendearen bueltan

HONA HAMEN "LA VOZ DE GUIPÚZCOA"-N 1928-XAN KALERATUTAKO PARE BAT NOTIZIA, GURE HERRIXAN SASOI HARTAKO BIZIPENEN BARRI EMOTEN DABENAK.

### Lapurketa zoragarria

Asko poztu nau oin dala egun batzuk periodiku honetako korresponsalak, nire "senidiak", emondako musika Bandaren kioskuan eguazen sillen lapurretaren barrixak. Ba, musikuak jarritta jotzeko eguazen 44 sillatik erdixak desagertu diralako, geratu diran beste guztiak herren eta hankamotz dagozela, aberixaut behintzat, bandako zuzendarixak azken Permanentian irakorri ebanez.

Ez dakigu oin zer erabagiko daben Fomento Komisiñuak, silla barrixak edo muelledun silloiak erosiko dittuan edo ez dittuan erosiko, "Mefistofeles"en gus-tua egitteko. Ez dakigu agintarixak Candelasen billa hasi diran be, hau da, lapur-raren atzetik. Ni, egixa, Ramon Iriondo Eibarko udal jueza banintza, gogoz aha-leginduko nintzake haren billa; baiña ez zigortzeko, sarixa emoteko baiño, lapur-reta hori sinpatikua izan dalako eta egilliak musikia maitte daguala erakutsi da-belako. Holan, Udalak ez badau silla barririk erosten, musiko guztiak zutiñik jo-

ko biharko dabe derrigorrez, baldintza hobiaguan, dotoretasan eta soltura gehixagorekin, danak zirkuluan, horretarako daka-eta kioskuak bere bobedia, kontu haundiz eginda, soiñu guztia aprobetatzeko. Gaur egun jotzen daben moduan, musiko guztiak puntu batera begira, bobedak ez dau ezertarako balio.

Gaiñera, zutiñik jo ezkerre, musikua lau milla bidar hobeto dago, eta adibidia emongo dot. Baten batek ikusi dau iñoiz banden konkurso batian musikuak jarritta jotzen? Ez! Nire informiak, Fomento Komisiñuak beria egittia nahi badau, silletan ogerleko bat bera be ez gastatzekua da eta hondatuta daguazanak ganbaran gordetzeko gomendatzen dot. Uda hau iñoiz baiño beruagua dalako, arraxatik be pasau da; eta horrek erakusten dau etorriko jakun negua gordiña eta benetan hotza izango dala. Sillak, egurrezkuak eta siku-sikuak diranez, udal ofiziñetako estufendako primeran etorriko dira. **Mefistofeles.**



Horazio Sarasketak 1944an egindako marrazki honek urte mordia egin zittuan Calbetón kaleko Bodega tabernan. Horko personajiki oso ezagunak ziran herrixan: 1- Bikandi; 2- Jazinto Arrillaga "Kaporala"; 3- Satur "Pañerua"; 4- Sebastian Orbea "Igeltserua"; 5- Gerrikabeitia "Asta"; 6- Lucio; 7- Hilario Otxabia "Barrenderua"; 8- Valentin Gorrotxategi "Txorrotx"; 9- Mendikute; 10- Bonifacio Villabella; eta 11- Patxi Askasibar, tabernako jabia.





# ONDO ENTZUTEA GOZAMENA DA

Zatoz entzuteko modu naturalena ezagutzera:  
belarri bi izanda, zergatik bakarra erabili?

ENTZUMEN-ZERBITZU  
BERRIA EZAGUTZERA ETORRI

Errebal, 14 20600 **Eibar**  
GIPUZKOA 943 202 137  
plazaola@naturaloptics.com

  
**natural audio**  
PLAZAOLA

[naturalaudio.net](http://naturalaudio.net)

> **klinika kortazar**      **Gidabaimenak eta armabaimenak**

**emankor**

**ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK  
LEIHOAK-FATXADAK-BEIRATEAK**

FABRIKA ETA ERAKUSKETA:  
Urtia Industrialdea- C1 pabilioia  
ERMUA-BIZKAIA

Tlfnoa: 943 170184  
Faxa: 943 170571  
e-maila: [emankor@euskalnet.net](mailto:emankor@euskalnet.net)


## Leiho isolatzaileak, kalitate markadunak

Hauxe da leihoak  
aldatzeko unea




**Energiaren Euskal  
Erakundeak (EVE)  
diruz-lagundutako  
RENOVE PLANA**

Eskatu informazioa  
eta aurrekontua



## TEEN- AUEA



Eibartarra garaile Arrasaten gabez  
jokatutako II. Tafyd krosean

12 urterekin hasi zen Multikirolean. Talde-kirola gogoko izateetik, eta ia arte Arrate eskubaloia taldean jardun eta gero, bere buruarekin izaten du lehia gaur egun Aitziber Urkiolak. Antxitxiketei gustoa hartu die eta, hasiberria izanda ere, egindako proba eta distantzia guztietan moldatu da bikain eta uste ez zuen progresioari eusten dio.

**AITZIBER URKIOLA, atleta:**

## “Gasteizen korrika asko egiten da”

**- Noiztik datorkizu antxitxiketan egiteko zaletasuna?**

Betidanik izan dut, baina aurren, Gasteizera etortzearekin bat, barruko hori bereziki indartu egin zait. Pisukide bat triatlouan dihardu eta, berak burua janda, Eibarko Klub Deportiboan sartu naiz krosetako probak egiteko

**- Herritik irten eta kirola aldatu duzu. Gasteizen, hiriburu berdean, erraztasun gehiago?**

Ikaragarria da. Adin guztieta-ko jendea ikusten duzu kalean korrika: gaztetxoak, adinean sartutakoak... zaletasun handia dago. Horrek asko laguntzen du.

**- Lasterketa askotan hartu duzu parte. Liga moduko batean ere sartuta zaude, ezta?**

Bai, DV Ligarako puntuagariak diren probetan hartzen dut parte eta baita hortik kanpokoetan ere. Euskal Herriko proba askotan izan naiz eta aurreneboraldia modukoa dihardut osatzen. Sasoia hartzeko balio didate.

**- Lasterketa misto batean ere hartu duzu parte. Zer moduz esperientzia?**

Oso ondo. Azpeitiko proban izan zen, Ander Santosekin har-

tu nuen parte 18. postuan amaitu genuen. Zarautzen abenduan beste bat izango dugu.

**- Eta txakurrekin bikotea osatuz... animatuko zinateke?**

Egiten dira, ala? Burutik ere ez zait pasa. Probatu behar esateko. Bai dakidala umeekin egiten direla, motxilan eramanda.

**- Mendi-lasterketak ez zaituzte tentatzen?**

Hitz potoloak dira horiek. Berako igoeran hartu nuen parte, distantzia laburreko proban, eta oso ondo joan zitzaidan.

**- Denetan moldatzen zara ondo, baina zein duzu distantzia egokiena?**

10 kilometroko probak nere neurrikoak dira. Krosean, sei kilometrokoetan, ondo ibili naiz. Maratoi erdi pare bat ere egin ditut, eta gustora. Maratoia egiteko gaztegegia naiz; entrenatzaileak buruz ondo noala dioen arren.

**- Domekako Behobia-Donostian izango zara?**

Iaz debutatu nuen, prestatu barik, eta 1h 36'-ko denbora egin nuen. Aurten ordu eta erditik jaitea gustatuko litzaidake. Ea lortzen dudan!



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

etxolajatetxea@hotmail.com  
Erreserbak: 943-207019  
Txirio kale, 1

# etxola

## JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

# Runberoekin hasi eta berunezko gitarrarekin amaitu

**P**isuarengatik neurgarria eta guzti izan zen saioa: rumba arinetik hasi eta metalik berunezkoenera arteko gitarren bidea. Epel ez gintuzten laga behintzat bi taldek: El trio calavera, Oñatiko runbarik katxondo eta zabarrarenarekin; eta Ymotek, betiko metalaren titanak bezala. Nabarmen, halere, Front Malabarrekoen apustu indartsua. Eta Rock Privadokoak espero moduan, etxerako lanak bikain eginda eta oholtzan disfrutatzen.

## El trío Calavera

Ahots lakarrarekin, gitarrekin ezin asmatuta eta kaxoia bere aldetik erritmoarekin. Ikuspegi musikaletik egin ahal zaizkien kritika guztiak agertokira igotako katxondeoak uxatu zituzten. Ezin bestela. Uxatu, kritikak; ze eurak oholtzatik uxatzeko gogorik ez zuten izan (proiekzioen pantaila gainera etorri zitzaizen azkenean). Rubio, joandako lagunari, dedikaturiko kontzertua izan zen eta emaitza ere horixe: lagunartekoa. Hori bai, *Poteando por Oñati* hit-ak ez zuen huts egin eta giroa berotzea behintzat lortu zuten. Zerbezak, turutak, kanpaitxoak eta berriketa asko. Andaluziar ukituaz ere ez ziren ahaztu: festatxoa egin zuten El trio Calaverakoak.

## Rock Privado

Bigarrenak herri bere-  
tik, baina alde ederrarekin. Turutak cowboy botengatik aldatu eta ondo pentsatu eta neurtutako emanaldiarekin etorri ziren Rock Privadokoak. Aitzakia gutxiko zuzenekoa da hauena, entsegu orduak bizkarrean eta egin nahi dena ondo jakinda. Neurria ere ondo hartua diote Danbakako formatuari -bigarren aldia da- eta igarri zen. Etxerako lanak ondo eginda eta eurak disfrutatzeke prest. Abestiak eta eguneroko istorioak. Ez dute zertan euren pribatua gorde. Kalitatea eta soinu onaren aldeko apustua ere ongi nabaria da; lehenagotik hori bazekarten. Zer berri? Abestiak abestiago. Bi disko kalean izatea ez da-eta alferrikakoa (promoa egitea ere ez zaie ahaztu, badaezpada ere).

## Front Malabar

Power-rock hirukotea hirugarren eta emanenez, erreferentzia moduan The Stooges, ala gaurkoago, The White Stripes. Bada, lezioa ondo ikasita etorri ziren Arrasate eta Bilbokoak. Gitarra bizi, baina ez astunegiak; bateria zanpatzailea eta baxu betega-



Ymotek taldekoek piztia atera zuten eszenatokira.

rri jostaria. Hala ere, piztia noiz agertuko zain laga gintuzten, eszenarioa noiz jango zuten zain. Ze, osterantzean, baina gutxiko emanaldiari basakeria osagarria falta izan zitzaion. Generoari oso leial, abesti sarkor eta kolpe handikoetan dute hauek gakoa eta horretan ez zuten hutsik egin.

## Ymotek

Abadiñoako piztia berehala atera zuten, alajaina. Intro eta zereemonia guztiak egin eta hasi ziren ohiko zereginetan: egurra baino beruna partitua. Hauen jokoa ere aski ezaguna da Danbakan: muturreko musika, gitarra murrak eta indar mendegaraitza. Teknikoki ezin finago, energia uholde geldiezinarekin. Hauek ere errepi-katzaile eta probara taldea indartuta aurkeztu ziren. Agian, baterian ibili da piztia herrenka. Bestela, erritmoaren kontrol ia mekanikoarekin, euren izan zen saio guztiko izerdi putzurik handiena.

BARRERLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEGABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA





www.danbaka.com




## Eszenatokian bidaia

**B**ederatzi urte daramatza Estatu Batuetan bizitzen FERNANDOK. **Moreliakoa** da jaiotzez, mexikarra, baina 'aukeren herrialdera' egin zuen jauzi bizitza berri baten bila. **Arizonara** burdin sareari jauzi eginez iritsi zen zehazki. Gaur egun ehizatua egingo lukete. Edozein etorkin edo etorkin izan daiteken norbait muga igarotzen ikusiz gero, euren aurka tiro egiteko baimena baitaukate arizonatarrek. Fernando, bere zorte onerako, duela hamarkada bat pasa zen, lana aurkitu zuen eta familia han dauka jada. **Los Angelesen** bizi da orain, zinearen mekan.

**Hollywoodeko** hizki erraldoien azpian denak du zine kutsua. Hollywood Boulevardeko espaloiak apaintzen dituzten izarrez, Antzerki Txinatarraz eta munduko zinema ekoizle handien egoitzez (jolas-parkeak ere direnak) gain, Felipe de Neve gobernari espainiarrak sortutako hiriko txokorik gehienak pantalia handian, zein txikian erakutsiak izan dira. **Beverly Hills, Rodeo Drive, Santa Monica, Venice Beach...** noizbait telebistan ikusitako irudiak dira. Sentsazio hori, hala ere, ez da Los Angelesera mugatzen, zinema munduak igorri duen 'american way of life' delakoa **Kalifornia, Nevada** eta Arizona inguruan, behintzat, kontatutakoa bezalakoa delako.

Aurreiritziak, hala ere, okerrak izaten dira



Malibú



Las Vegas

gehienetan eta EEBB-ei buruz dauzkagunak (nik nituenak behintzat) okerrak ziren ere. Harroak, berekoiak, egozentrikoak... zirelakoan hartu nuen hegazkina Bartzelonan. Oker nabilen (eta ez dut uste kasualitatea izango denik eta EEBBko pertsona adeitsuenekin topo egin genuenik). Jende eskuzabalarekin, irekiarekin... egin genuen

topo Mikel, Mikel eta hirurok han egin genituen 22 egunetan, edozertarako laguntzeko prest zeuden pertsonekin.

Eszenatokia aldatuta ere sentsazioa mantetzen zen. Hori eszenatokitik eszenatokira distantzia izugarri handiak direla EEBBko mendebaldeko kostan. Egia esan, dena da handia han. Kafea edalontzia handietan, autorik txikienak errege izango lirake Eibarren... Los Angelesen, adibidez, kotxerik izan ezean orduak egin ditzakezu Hollywoodetik Santa Monicako hondartzaraino oinez (garraio publiko urriarekin fidatzen bazara...). Ez, ostera **San Francisco**. Metroaren zeregina duen duen tren antzeko bat dauka, tranbiak hiriko malda ospetsuetan gora eta behera dabilta, eta distantziak ez dira gehiegizkoak. Zapora arlotea uzten du hiriak.

Buhametasun hori bertan bizi diren pertsonak ematen diote (baita aldapa eta goizero hiria estaltzen duen behelainoak). Fernando bezala mundu guztitik iritsitako pertsonak. Bakoitzak bere pelikula bizi du eta han aurkituko dugun eszenatokia munduko famatuena da.






## Domekan La Muela etorriko delakoan

**ARAGOIKO TALDEA EGOERA ZAILEAN DAGO ETA JOKALARI ETA TEKNIKOEN ESKU** dago domekan Ipuruan aurkeztu edo ez. Azken lau hilabeteko nominak zor dizkie klubak eta baita denboraldi osoko primak eta iaz mailaz igotzearen jokalarien artean banatu behar zituzten 6.000 euroak.

Neurketa arratsaldeko 17.00etan hasiko da eta Manixen taldearen aurkariak 15 puntu ditu, Eibarrek baino 11 gutxiago. Bilbao Athletic-i irabazi zion Lezaman orain dela asteburu bi eta ez da aurkari erraza izango. Eibarrek, bestalde, kanpoan jarraian bost partidu irabazi eta gero, azken jardunaldian berdindu egin zuen Irunen.



La Muelako jokalariek konpetizioa bertan behera lagatzeko mehatxua egin dute.


## Ipuruako play-offa zailtzen dihardu Eibar Rugbikoentzat

**HIRU PARTIDU JOKATU DITU ORAIN ARTE EIBAR HIERROS ANETXE TALDEAK**, eurretatik bi etxean: eta justu Unben jokaturako biak galdu ditu, Zaragozan irabazi zuen bitartean. Iaz maila galdua, igoerako play-offa jokatzeko hautagaien artean behar zuen taldeak ez du segurtasun handirik eman orain arte eta sailkapeneko erdialdean dago kokatuta. Azken partiduan 19-22 galdu zuten eibartarrek Santanderreko Independienterekin eta orain Ordiziara joan beharko dira lehenbailehen irabazteko obligazioarekin.

Neskek, bestalde, garaipen zapozeko berdinketa eskuratu zuten Arrasate-Durango taldearekin jokaturako partiduan (17-17), oso ondo borrokatutako norgehiagokan.

## San Andres judo torneoa bihar Ipuruan

**BIHAR, 15.30-ETAN HASITA, SAN ANDRES NAZIOARTEKO JUDO TORNEOA IZANGO DA JOKOAN** Ipurua kiroldegian. Eguazternerako 400 kirolarik eman dute izena, Euskal Herriatik, Errioxatik eta Frantziatik datozenak; Kalamuatik 30 bat judoka izango dira. Hasieran, sariak emango zaizkie Mundialetan, Europakoetan eta Espainiakoetan dominak jaso dituzten judoka euskaldunei: Oihana Blanco, Maider Palavecino, ...



## Arrate auto igoera onenen artean

**ESTATUKO PROBEN ARTEAN, BIGARREN POSTUAN KOKATU DUTE** Escudería Eibarrek antolatzen duen auto lasterketa. Santo Emiliano igoera izan da onena atzera ere (226 puntu), Arratekoaren aurretik (225). Hala ere, diru-laguntzetan proba txiroena da Eibarkoa: Asturiasen Santo Emiliano printzerriak ematen dion %10 jasotzen du Arratekoak Diputaziotik.

## Eskubalo teknifikazio jardunaldia

**GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOAK TEKNIKAZIO JARDUNALDIAK ANTOLATU DITU** eta horietako bat Ipurua kiroldegian egingo da hilaren 21ean, domekan, goizeko 10.00etatik 11.30etara. Ekitaldi horretan 1999an jaiotako mutilek hartu dezakete parte, hau da, bigarren urteko alebin mailakoek.

Asobal Ligako Arratek, bestalde, aurreko barixakuan Toledori larri-larri (29-28) irabazi eta gero, domekan, 20.00etan, Zaragozan jokaturako du, CAI Aragonen aurka.



**berriro ere  
EIBARREN**

**'Ongi etorri... Pupu eta Lore'  
ikuskitzen berriarekin**

**Abenduaren 11n  
16.30 / 19.00**

**Abenduaren 12an  
16.00 / 18.30**

*Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten*  
**BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA**  
**azaroaren 15etik 26ra** (6'50 euro)  
Bazkide bakoitzak: 3 sarrera gehienez  
Salmenta ordutegia ...eta kittedo!-n:  
08.30-14.30 eta 16.00-19.30

**GAINONTZEKOAK: 27tik aurrera** (7'00 euro)

*Orain dela aste bi amaitu da automodelismoaren denboraldia, Mendaron jokaturako Euskadiko txapelketarekin. Martxoaren amaieran hasita, sei proba jokatu dira guztira. Modalitate bi ditu automodelismoak eta 1/8koan Arkaitz Ruiz eibartarra azpitxapelduna izan da. Berak kontatu dizkigu kirol horretako nondik-norakoak; 1 Formulako denboraldia ere amaitzear dagoenez, zeinen alde dagoen galdetu diogu: Alonsok irabaziko duelakoan dago, akaso afari bi dituelako jokoan.*

**M**endaroko Ospas-Gain foball-zelaian egiten dituzte probak, “han daukagularako azpi-egitura finkoa: zirkuitua eginda, podiuma kokatuta...”. Sasoi batean Areitio gainan jokatzen zen txapelketa, baina orain Mendarok hartu du lekukoa: “Badago beste pista bat Gasteizen, baina ez dago homologatuta; eta Barakaldokoa pistakoa da, ez lur-orotakoentzako (todoterrenoa)”.

Lur-orotakoaren lasterketa hauek ikusgarritasuna dute euren alde: jauziak ez dira nolana hikoak izaten. Bideko zuloak pizgarri dira horrekao probetan eta ikutu ezberdina ematen die probei, ikusleen gozamenetarako.

Eskala biko autoak hartzen dute parte automodelismoan: “1/8koa eta 1/6koa. 1/8koan autoak 3 kilo eta erdikoak dira eta gasolina bereziarekin funtzionatzen dute; 1/6koak berunik gabeko gasolinaren ibiltzen dira eta 12 kilo pisatzen dute. Txikiak 350 eurotik hasita



## Automodelismoaren ikusgarritasuna







erosi ditzazkezu eta handiak 1.000 eurotik gorako prezioa dute”, dio Arkaitz Ruiz Avar-

eztanda taldeko ordezkaririk. 50 lagun dira talde horretan eta bera eta Aitor González Eibarko bakarrik: “Datorren urtetik aurrera, Markelek -Aitorren semeak- ere hartuko du parte”. Arkaitz bigarrena sailaktu da Euskadiko txapelketan 1/8 modalitatean; 176koan, bestalde, 17.a izan da. Aurtengoa 20.edizioa izan da 1/8an eta 3. denboraldia 1/6an.

1 Formulako autoekin moduan funtzionatzen dute, “beti ere Aecar-ek egindako araudiaren arabera”. Lasterketa egunean, sailkapenerako probak jokatzen dira lehenengo, bost minutuko txanda bietan; jarraian, finalerdien ordua izaten da, “hamar autorekin talde bakoitzean eta ordu erdiko iraupenarekin”. Azkenik, finala: “Hor hamar pilotok hartzen dute parte, hiru ordu laurdeneko lasterketan”.

Janaritze edo errepostajerako, 1/8ko autoek 7-8 minutuero kargatu behar dira berriro, “deposito txikia baitute; handiak, bestalde, ordubeteko autonomia dutenez, ez dute horren beharrik izaten”. Errobera desberdinak erabiltzen dituzte, zirkuituaren arabera. Bezerarako lanak garrantzi handia du: “Amortiguadoreak prestatu behar izaten ditugu, silikona gehiago behar badu jarri...”. Zelako abiadura hartzen duten auto horiek? Zuzen tarte askorik ez da izaten proba horietan, baina “handiak 100 kilometro hartzeko gauza dira; txikiak 80ra helduko dira”, dio Arkaitzek. Hazten doan modalitatea da automodelismoarena eta datorren urterako Espainiako txapelketarako proba eskatu dute Mendaron.



## Euskadiko hiru txirlo txapelketaren azken jardunaldia

**AZKOITIKO FLOREAGAKO BOLATOKIAN JOKATUKO DA BIHAR EUSKADIKO XXI. HIRU TXIRLO TXAPELKETAREN AZKEN JAURTIALDIA.** Zaila da asmatzea zeinek jantziko duen txapela, ikusita txirlo biko aldearekin zortzi jokalaria daudela: une honetan Asola-Berriko Bittor Ugartebururekin berdinduta daude Iruzubietako Ibai Díez eta Joseba Lazkano eta Lasturreko Antolin Arizmendiarieta, txirlo bakarrera Asola-Berriko Juan Txurruka eta San Migueleko Iker Izagirre eta Javier Osoro daude eta bira aurkitzen da Asola-Berriko Ganix Rodríguez. Ikusten denez, gure herriko hiru ordezkari lehiatuko dira Euskadiko txapelaren borrokan. Markinako Barinagan jokatutako azken jardunaldian, Ganix Rodríguez eibartarrak irabazi zuen. Taldekako sailkapenean, bestalde, Asola-Berri A taldea da nagusi eta bikoteka Ganix eta Ibai Díez doaz aurretik.



## Herriko pilotariak euren multzoetako lehenak

**BAI EGAÑA-BENGOETXEA ETA BAITA UNAMUNZAGA-ZUBIZARRETA, BIKOTE BIAK SAILKATU DIRA** Gipuzkoako Kluben Arteko txapelketako hurrengo faserako eta kasu bietan multzoko lehenak. Ipurua kiroldegian jokatutako norgehiagokan, atzelariekin osatutako bikoteak, hau da, Egaña-Bengoetxeak 22-19 irabazi zion Zumarragako ordezkariari; eta aurrelarietako osatutako bikotea, iragapen guztien aurka, 22-16 nagusitu zen Aretxabaletan. Gaur, 20.15etan hasita, Iker Narbaiza infantilak irabazi egin beharko du, 4aren barruan, aurrera egiteko.



## Eibartarrak Squash EuskalSofan

**ZARAUTZEN ASTEBURUAN JOKATUTAKO SQUASH EUSKAL-SOFA TORNEOAREN** bigarren edizioan, Klub Deportiboko Alberto Ferreiro finalerdietara heldu zen eta, azkenean, 4. postuan amaitu. Sergio Salgado taldekidea final-zortzirenetan geratu zen kanpoan, Aitor Yanguasekin (azkenean 3.a izango zen hau) galdu eta gero; eta Jon Losadak ezin izan zion aurreko fasetik zetorren Miguel Odriozolari irabazi.



## Eibarko Errealzaleak Bartzelonarako bidaia prestatzen



**REALAK BARTZELONAN ABENDUAREN 12AN JOKATU BEHAR DUEN PARTIDUARI BEGIRA,** Eibarko Errealzaleak-ekoek autobusa prestatu dute. Autobus hori bezperan irtengo da Eibartik, goizeko 07.00etan, eta domekan bueltatu, partidua amaitu eta jarraian. Txartelak 75 euro balio du eta hor autobusa, hotela eta gosaria sartzen dira, sarrerak ziurtatuta izateaz gain. Plaza mugatuak dira eta interesatuek Manuel "Juanito" tabernatik pasa daitezke (943-121657).

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**Radio Eibar**

CADENA SER

**104,0 FM**

**Helbidea**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
<b>BERRIA:</b>	
Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

Usartza Txistulari Taldearen 75. urtemugaren ospakizunen barruan, Donostiako Udaleko Txistulari Taldea izango dugu gaur, arratsaldeko 20.30etatik aurrera Coliseo antzokian. Euskal Herriko txistulari bandarik onenatarikoak, Jose Ignacio Ansorena zuzendariaren gidaritzapena jardungo du.

**JOSE IGNACIO ANSORENA, txistularia:**

## **“Eibarko Txistulari bandak bere burua egokitzen eta taldea eraberritzen jakin du”**

**- Nola hartu duzue Eibarko taldearen gonbidapena?**

Oso pozik. Lehen ere Eibarren askotan egondakoak gara. Hango txistulariak lagunak ditugu, eta nire ikasleak izandakoak ere badira. Elkartearen hainbat batzar ere egin izan ditugu, eta esan beharra dago jendetsuenak beti Eibar-koak izaten zirela. Oso txistulari eta konpositore onak eman ditu Eibarrek, Perez Sarsketa eta Larrinaga, besteak beste, eta bertako ikuslea ere, oso jatorra da.

**- Zer eskainiko duzue Coliseoko emankizunean?**

Azken urteetan txistu-giroa motelduta dagoela-eta, giroa suspertzeko eskatu digute. Programa ikusgarria prestatu dugu, eibartarrentzat bereziki prestatua. Gainera, txistuaz gainera, bestelako instrumentuak ere sartzen ditugu taldean, beste sonoridade bat dugu eta hori jendearrentzat harri-gerria izan daiteke. Kezka dantza taldea eta Musika Eskolako abesbatzarekin batera jardungo dugu, eta sorpresarik ere ez da faltako.



**- 75 urte betetzea ez da gutxi, ez?**

Horrek erakusten du jende askok lan handia egin duela. Nahiz eta gaur egun txistua ordu bajutan egon, jende horrek egindako lanak eman ditu bere fruituak. Iraun baldin badiu benetan baliozko zerbit delako izan da. 75 urte hautan aldaketak egin dira, egokitzen jakin dute eta hortan jarraitu behar dugu, etengabe egokitzen. Hori gauza ona da.

**- Eibarko taldean kexu dira erreleborik ez ei dagoelako.**

Gaur egungo gazteen egoera ezin dugu gure belaunaldikoen egoerarekin alderatu. Nire sasoi oso konprometituak geunden herriko musikarekin; herri kulturarekin egoera politiko bati aurre egiten zitzaien, baina gaur egun hori guztia aldatu egin da. Normala da txistulari gutxiago egotea, baina garrantzitsuena da daudenek ondo egitea euren zeregina, hau da, gizartearen beharrei ondo erantzun behar diote, hori da, azken finean, txistulariaren betebeharra.



## **Periko Iriondoren lekukotasuna “Eibartarren Ahotan”-en**

**PEDRO “PERIKO” IRIONDO MUGERZAREN LEKUKOTASUNA JASO DUTE** Eibartarren Ahotan proiektuan. Ego Ibarra batzordeak 1999ko udan ekin zion proiektuari, ahozko ondarea herriko nagusien ahotik zuzenean jasotzeko helburuari jarraituta, eta orain arte 88 eibartarren lekukotasunak batu dituzte denborak aurrera egin ahala handitzen doan fondoan. Lekuko-zerrendari gehitu dioten azken laguna Periko Iriondo kaxagina izan da. "Armas Arri-zabalaga" lantegian beharrezko diharduen artisauek batez ere

bere lanbidearen berri eman die Ego Ibarra: *“Tailarraren historia eta armagintzak 1950-etik hona izan duen bilakabidea kontatu dizkigu, baina, horrez gain, garrantzi handiko beste zerbaite ere jasota geratu da: bere beharrezko inguruko xehetasun guztiak azaltzearekin batera, erabiltzen dituen erremintak zeintzuk diren ere kontatu digu”*. Iriondoren lekukotasuna, zerrendako beste eibartarrena bezala, Ego Ibarra batzordearen webgunean ([www.egoibarra.com](http://www.egoibarra.com)) irakurtzeko moduan dago.



## **Kameratoia lehiaketako irabazleak**

**SEIGARREN KAMERATOIA-N SARITUTAKO LANAK ZEINTZUK** izan diren zapatuan eman zuten ezagutzera, Ermuan egindako saio berezian: lehenengo saria Epalzaren Alargunak taldeak eraman du, "II" filmarengatik; bigarrena Zapatilla Films taldeak "Biak ba" filmarengatik; eta hirugarrena, berriz, PuntutapArte taldeak, "Ermugarra" filmarengatik. Horrez gain, antolatzaileek aipamen berezia egin diote Hegoaixe Eskoriatzako taldeari, *“urtero, sei edizioetan, sekula kale egin barik parte hartu izan dutelako”*. Topaguneak antolatutako Euskal Herriko ikus-entzunezko lehiaketaren inguruko gorabehera guztiak, argazkiak eta saritutako lanen bideoak barne, [www.kameratoia.com](http://www.kameratoia.com) helbidean aurkituko dituzue.



## “Olentzero & co!” abenduaren 4an Coliseoan

**AURREKO ASTEAN AURKEZTU ZUTEN PORTALEAN “OLENTZERO & CO!” EUSKERAZKO IKUSKIZUN MUSIKALA.** Aktoreak, dantzariak, abeslariak, koroa, akrobatak, txotxongiloak eta zinea, horiek guztiak bazten dituen ikuskizuna Bergarako hainbat taldek elkarlanean sortu dute, Josu Mujikak zuzentzen duen Eibarko Biraka Dantza Taldearen kolaborazio bereziarekin. Izan ere, ikuskizunean parte hartuko duten dantzariak talde horretakoak dira.



Lamiak, iratxoak, Anbotoko Mari, Mari Domingi eta euskal mitologiako beste hainbat pertsonaia taula gainean batuko dituen ikuskizuna abenduaren 4an ailegatuko da Coliseoan. Lehenengo saioa 17.30etan hasiko da eta bigarrena 20.00etan. Sarrerak (15 euro) honezgero internet bidez erosteko moduan daude, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

## Kezka-ko dantzariak Arriagan domekan



**JUAN ANTONIO URBELTZ-EK ZUZENTZEN DUEN ARGIA DANTZARI TALDEAREN** “Axuri-beltza” ikuskizuna hartuko du Bilboko Arriaga antzokiak, 19.00etatik aurrera eta Argia, Duguna eta Haritz taldeetakoekin batera Kezkako 20 dantzari hartuko dute parte. Orain urtebete, 2009ko abenduaren 4an eskaini zen lehenengoz “Axuri-beltza” ikuskizuna Donostian, Victoria Eugenia antzokian. Jaialdi berezia izan zen, 40 urte aurretik Argiak bir-sortutako lehen dantza, Jaurrietako “Axuri-beltza” gogorazi nahi zuena, eta ordutik gaur egunera egindako ibilbidean bildutako beste ale batzuk jasotzen zituena.

## Eibartarrak ere ipuin-kontalari



Eibarko ama-alabak Kontalariako kamioi barruan. / MAIALEN BELAUSTEGI

**ZAPATUAN UNTZAGAN BISITAN IZAN ZEN KONTALARIA EGITAS-MOKO KAMIOIA** eta bertan hainbat eibartar ezagunek hartu zuten parte. Besteak beste Sostoa abesbatzakoek, Ester Kareagak, euskaltegi bietako ikasleek... aurrekoaren ipuinari jarraipena emanez. Herri bakoitzean ipuin ezberdinak sortzen dihardute eta 20 herritan bildutako kontakizunak, argazkiak eta ipuinak [www.kontalaria.net](http://www.kontalaria.net) webgunean ikus daitezke.

## Korta eta Urko Aristi Eta kitto!-n eguaztenean

**ETB-2KO “EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO”** saioaren inguruan berba egingo du José Luis Kortak datorren astean, besteak beste Patagoniako bere esperientziaren berri emateko. Eguaztenean 19.00etan hasiko da ...eta kitto! Euskara Elkartek “Illunabarrian” egitasmoaren barruan antolatutako saioa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartera). Mahai-inguru modura planteatutako ekitaldia zuzentzen, berriz, Urko Aristi kazetariak jardungo du.



## Galarzaren 40 eskultura Durangon

**ESTHER GALARZAREN ZERAMIKA-LANAK** Durangon ikusgai daude aurreko barixakuz geroztik, Sanagustinalde kalean dagoen Arte eta Historia Museoa. Hainbat teknikari jarraituta, gres-pasta erregogorarekin sortutako 40 eskulturaz osatuta dagoen erakusketa martitzenetik domekara bisitatu daiteke, 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara. Azaroaren 28ra arte egongo da martxan erakusketa.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
943 201095 FAX: 943 202564



Toribio Etxebarria, 4

## laburrak

### SUTEGI ANTZERKIKOAK GAUR ERMUAN

Miguel Hernández gogoan, "Poesía para la libertad" antzezlan aurkeztuko du Sutegi antzerki taldeak gaur 19.30etan eta 22.15etan Ermuko Lobianon (sarrerak 5 euro balio du). Juankar Colinak zuzendutako lanean Xabier Albarán, Leire Arriola, Esther Barrero, Natalia Cabana, Gorka Errasti, Virginia Herrera, Piedi Kortazar, Jaime Lucas, Sindy Otero, Vanessa Rodríguez eta Juankar Colina berak hartuko dute parte.

### ASIER ERRASTI


Astlehenean hasiko dira Plano Corto elkarteak antolatutako XI. Asier Errasti laburmetraia jaialdiko proiektzioak. Portalean emango dituzte laburmetraiak, hilaren 15ean hasi eta barixakura arte, egunero 19.45etatik 21.30etara. Sarrera doan izango da. Ia 300 lan jaso dituzte aurtengo lehiaketarako deialdian eta irabazleen izenak hilaren 20an, hurrengo asteburuan emango dituzte ezagutzera.

### ESTEBAN LANDART-EN KONTZERTUA

Zapatuan Eibarko Musikaldiaren barruan antolatutako azken emanaldia hartuko du San Adres elizak. 20.00etatik aurrera. Esteban Landart organo-joleak kontzertua eskainiko du.

## Komiki eta film digitalak nola sortu ikasten

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK 14 ETA 32 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT** pentsatutako ekimena ipini du abian, "Making WorkShop". Horren harira tailer modura planteatu diren ikastaro bi eskainiko dira: "Komiki digitala" (paper toys teknika erabilia, maketazio eta konposizio grafikoa lantzeko aukera izango dute gazteek) eta "Liburutegi baten trailerra" (liburu baten istorioaren esentzia bereganatu ondoren, story-boarda egin, produzitu eta filmatu egingo dute). "Komiki digitala" izenburukoa abenduaren 11n eta 12an garatuko da (5 orduko iraupena dauka) eta matrikulak 4 euro balio du Eibarren errolatutakoentzat (8 euro besteentzat). "Liburu baten trailerra" delakoa azaroaren 17tik 23ra bitartean garatzeko asmoa dute (10 orduko iraupena izango du eta 3 egunetan emango da, izena-ematen dutenek aukeratutako egunetan). Matrikulak 10 euro balio du Eibarren errolatutakoentzat (22 bes-



teentzat). WorkShop-ak zine zuzendari batek eta komikian espezializatutako diseinatzaile grafikoa batek zuzenduko dituzte eta internet-en <http://www.makingsarea.blogspot.com/> helbidean izango dute topalekua. Ekimena Kutxak babestutakoa da.

## Pirritx eta Porrotx-en ikuskizunerako sarreraren salmenta

**ABENDUAREN 11-N (16.30ETAN ETA 19.00-ETAN) ETA 12-AN (16.00ETAN ETA 18.30-ETAN)** "Ongi etorri... Pupu eta Lore" ikuskizuna aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo-



ek, Hezkuntza Esparruan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ekitaldirako sarreraren aurrezalmenta astlehenean hasiko da, elkartearen bulegoan (Urkizu, 11 solairuarterean). Hilaren 26ra arte bakarrik elkarteko bazkideentzat salduko dituzte, 6'50 eurotan, eta bazkide bakoitzak gehienez 3 sarrera erosteko aukera izango du. Bestela, bazkide ez direnentzat salmenta hilaren 27an hasiko da (7 euro), ohiko tokitan. Sarrera erosi nahi duten bazkideek astlehena eta barixakua bitartean jo dezakete ...eta kitto!-ra, goizez 08.30etatik 14.30etara eta arratsaldez, berriz, 16.00etatik 19.30etara.

## Violadores del Verso-ko Kase.o Elgetan

**AZAROAREN 20-AN VIOLADORES DEL VERSO MUSIKA TALDEKO KASE.O ELGETAKO ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN** izango da kantuan, 22.30etan, Daniel Comas (gitarra), Hugo Astudillo (saxoak), Juan Pablo Balcazar (kontrabaxua, baxu elektrikoa) eta Dani Domínguez (bateria)

musikariek lagunduta. Hip-Hop eta jazz doinuetan oinarritutako "Kase.o Jazz Magnetism" proiektua aurkezteko emanaldia Euskal Herrian emango duten kontzertu bakarra izango da eta sarrerak aldeztu aurretik 15 eurotan erosi daitezke internet bidez (egunean bertan 18 eurotan ipiniko dituzte salgai).

## BEATRIZ VILLABELLA ARREGI

(2010eko azaroaren 5ean hil zen, 59 urterekin)


Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

SENDIA




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, OIER Kortina Etxabe, atzo lau urte egin zenuduzen-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IZAR, sei urte betetzen dozuz-eta. Jarraitu distira egitten. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALAITZ Amesti, hillaren 10ian hiru urte egin zenuduzen-eta. Aitxitxa-amama, aitta, ama eta neba Ugaitzen partez.




Zorionak, ANNEKE, hillaren 10ian hiru urte egin zenuduzelako. Amatxo, aitatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANA MARI, bixar zure urtebetetzia izango dalako. Muxu haundi bat zure famelixaren partez



Zorionak, JOKIN, zure 7. urtebetetzian. Muxu haundi bat amama Amaia eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, VICTORIA, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, ANDER, astelehenian urtebete egingo dozulako. Aitta, ama eta etxekuen partez.



Zorionak, GORKA eta AINTZANE, urriaren 30ian ezkondu zifazien-eta. Egun zoragarria pasatu genduan. Famelixaren partez.

## JAOTAKOAK

- Luka Palacios Sarasua. 2010-XI-2.
- Azahara Cortés Cortés. 2010-XI-3.
- Mikel Ariznabarreta Calvo. 2010-XI-4.

## HILDAKOAK


- Francisco Castelos González. 90 urte. 2010-XI-4.
- Julian De Blas Herranz. 82 urte. 2010-XI-5.
- Jose Dionisio Gantxegi Blanco. 65 urte. 2010-XI-6.
- Nestor Maiztegi Gantxegi. 87 urte. 2010-XI-6.
- Fernando Azkarate Telleria. 77 urte. 2010-XI-7.
- Francisca Olabarria Larrañaga. 92 urte. 2010-XI-8.
- M<sup>a</sup> Cruz Narbaiza Azpitarte. 86 urte. 2010-XI-9.
- Sabino Jauregi Loiola. 74 urte. 2010-XI-10.

## zinea Coliseoan

**12an: 22.30**  
**13an: 17.00/19.45/22.30**  
**14an: 17.00/19.30**  
**15ean: 20.30**

### "Enterrado (Buried)"

Zuzendaria: **Rodrigo Cortés**  
Aktoreak: **Ryan Reynolds, Samantha Mathis, Stephen Tobolowsky, Ivana Miño**



Paul Conroy kamioilaria eta familia burua hilkutxa zahar batean esnatuko da. Horra zelan heldu den jakin barik, bateria erdi agortuta duen mugikorra izango du eskura. Oxigeno gero eta urriagoarekin egin beharko du aurre: 90 minutu ditu erreskatatua izateko.

**12an: 22.30**  
**13an: 17.00/19.45/22.30**  
**14an: 17.00/19.30**  
**15ean: 20.30**

### "Carancho"

Zuzendaria: **Pablo Trapero**  
Aktoreak: **Ricardo Darín, Martina Gusman, Carlos Weber, Jose Luis Arias**




Argentinan 8.000 lagunetik gora hiltzen dira urtero auto-istripuetan. Horren atzean, aseguruaren industria eta legearen ahultasuna daude. Sosa abokatuak ospitale eta komisaldegiak bisitatzen ditu bezero bila; Lujan medikoa gizon bat salbatu nahiko du.

**12an: 22.30**  
**13an: 19.45/22.30**  
**14an: 19.30**  
**15ean: 20.30**

### "Imparable"

Zuzendaria: **Tony Scott**  
Aktoreak: **Chris Pine, Denzel Washington, Elizabeth Mathis, Rosario Dawson**




"Basapiztia" bataiatutako tren bat, toxiko eta sukoi materialez beteta, kontrol gabe doa aurretik harrapatzen duen guztia apurtuz. Gidari gazte bat eta ingeniari beterrano bat plan irudimentsua antolatuko dute trenaren geratu eta hondamen handia ekiditeko.

**13an: 17.00**  
**14an: 17.00**

### "Campanilla"

Zuzendaria: **Brad Raymond**  
Pertsonaiak: **Dr. Griffiths, Rosetta, Campanilla, Iridessa, Terence, Clank**



Lur Egonkorrean uda pasatu eta gero, Campanilla harrapatuko dute iratxoaren etxe txiki bat arakatzen. Beste iratxo guztiak, Vidiaren aginduetara, bera erreskatatzen ahaleginduko dira; birtartean, Campanillak harremana egingo du neskatila bakartiarekin.

## horoskopoa

**ARIES**

Oraindik ez dakizu nork bialdu dizun SMS hori? Irakurri ondoko, agian bertan pistaren bat topatuko duzu. Ez erantzun ziur egon arte.

**TAURUS**

Asteburu honetan udan ezagutu zenuen lagun berezi batekin egingo duzu topo. Beste aukera bat izango duzu udakoari jarraiera emateko.

**GEMINI**

Diskrezioa zer den badakizu? Zuri sekretuak gordetzeko eskatzea alperrik da. Ez baduzu jarrera hori aldatzen, ez dizute ezer kontatuko.

**CANCER**

Erabakiak bote prontoan hartzeko ohitura duzu eta sarritan garesti ordaindu behar izaten dituzu ondorioak. Izan arduratsuagoa.

**LEO**

Asteburuetak planaz aldatzea gomendatzen dizut; zu zeu ere aspertuta zaude. Behingoagatik lotsa galdu eta ligatu ahal duzuna.

**VIRGO**

Olentzerori zer eskatu pentsatzen ari zara? Aurpegi galanta duzu: ikusten duzu opariak jasotzearen edozer egingo zenukeela.

**LIBRA**

Etxeko lanak egitea zuri ere badagokizu. Hori ez da hotela, ezta pentsioa ere. Mesedez, hasi zaitetz lanean; ez dizu kalterik egingo.

**SCORPIUS**

Aste honetan opari bitxi eta misteriotsua egingo dizute. Horrelakorik espero ez bazenuen ere, pozarren hartuko duzu.

**SAGITTARIUS**

Hainbeste litxarrerria eta gero, tripako minez zaudela? Normala izango da, ba! Kontrolatu apur bat, Gabonak ate joka dagoz-eta.

**CAPRICORNIUS**

Lagaizu behingoz "Gran Hermano". Telebista neurrian ikusi behar dela! Eguraldia kaxkartzen hasi bada ere, aprobetxatu kalera irtetzeko.

**AQUARIUS**

Jasanezina zaude. Egun osoan umore txarrez, marmarrean... Buruhaustek badituzu, kontatu, baina ez bota errua besteei.

**PISCIS**

Amodioak sari potoloa ekarriko dizu laster. Hainbeste denboran itxaroten egon zarena lortuko duzu. Zorionekoa zu eta zure inguruokak!

## Barixakua 12

**BEHEKO TOKIA**

**17.30.-** Beheko Tokiaren XV. urteurrena: kafesnea eta pastak. Jarraian, Jorge Sánchez abeslari kubatarraren saioa. Beheko Tokian (Karmen, 6).

**INAUGURAZIOA**

**20.00.-** M<sup>o</sup> Carmen Piriz-en margo abstraktuen erakusketaren inaugurazioa. Untzagako jubilatuen etxean.

**TXISTULARIEN KONTZERTUA**

**20.30.-** Egitaraua: "Agurra: Ebarko kontrapasa" (ezezaguna), "Hirugarn kalez kale" (P. Sorozabal), "Le Basque eta Biscayenne" (M. Marais), "Arizkun" (J. I. Ansorena), "Birigarroa" (I. Ansorena), "Txapeldu Txikiak" (I. Ansorena), "Euskal Abestien bigarren rapsodia" (L. Urteaga), "Donostiako hiru damatxo" (J. I. Ansorena), "Dantza soltean: Eibarko bikotea" (A. Zuluaga) eta "Lau euskal abesti" (X. Sarasola). Usartza Txistulari Taldea, Kezka dantzari taldea, J. B. Gisasola Abesbatza eta Donostiako Udaleko Txistulari Taldea. Coliseoan.

**ANTZERKIA**

**19.15/22.15.-** "Miguel Hernández poesía para la libertad", Sutegi antzerki taldearekin. Sarrera: 5 euro. Lobianon (Ermuan).

## Zapatua 13

**MAGOSTO JAIA**

**12.00.-** Gaztaina erreak eta Ribeiro ardoa salgai. Urkizun.

**BEHEKO TOKIA**

**17.30.-** Beheko Tokiaren XV. urteurrena: hildako bazkideen omenezko meza Karmengo Amaren elizan. Jarraian, piskolabisa. Beheko Tokian (Karmen, 6).

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera, Untzagatik abiatuta.

**MUSIKALDIA**

**20.00.-** Esteban Landart-en organo kontzertua. San Andres parrokian.

## Domeka 14

**MAGOSTO JAIA**

**12.00.-** Gaztaina erreak eta Ribeiro ardoa salgai. 13.00a arte umeei doan emango dizkiete gaztainak. Urkizun.

**AXURI-BELTZA DANTZA**

**18.30.-** 'Persépolis' pelikularen emanaldia. Tallarra gaztetxean.

## Astelehena 15

**GAZTAINERRE**

**19.00.-** Odra janak tabernaz taberna, Agirrebeña anai-arrebak girotuta. Kalejira eta afari-merienda. Portalea tabernan.

**ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA**

**20.00.-** Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Portalean.

## Martitzena 16

**IKASTEN**

**10.00.-** "Inteligencia emocional", Adindu-ren eskutik. Armeria Eskolan.

**ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA**

**20.00.-** Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Portalean.

## Eguaztena 17

**ILLUNABARRIAN**

**19.00.-** "El conquistador del fin del mundo", José Luis Korta eta Urko Aristirekin. ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11).

**ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA**

**20.00.-** Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Portalean.

## Eguena 18

**IKASTEN**

**10.00.-** "Seis renombrados personajes vascos", Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

**PERTSONENGAN (BENETAN) SINESTUZ EKITALDIA**

**11.00.-** Aurkezpena, J.M. Ulazia Armeria Eskolako Ikasle Ohien elkarteko presidentearen eskutik. **11.15.-** Alberdi Mekanizatuak enpresaren ibilbidea eta esperientzia, Aitzol Alberdi Juaristi enpresako zuzendariaren eskutik. **11.45.-** Atsedendaldia. **12.00.-** Elkarrizketa. **12.30.-** Amaiera. Armeria Eskolako Ikasle Oihen Elkartearen egoitzan.

**BATZARRA**

**19.00.-** Armeria Eskolako Gurasoen Elkarteko enpresaren urteko batzarra eta ikasle onenei sari-ematea. Armeria Eskolan (elkartearen egoitzan).

**ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA**

**20.00.-** Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Portalean.

**MUNDUKO PAISIAIK**


**20.00.-** Boliviako sukaldaritzaren inguruko tailerra. Juan San Martin liburutegian.

**ESKOLARTEKO BAKAILAO LEHIAKETA**

**20.00.-** Eskolarteko bakailao lehiaketan parte hartuko dutenei bakailaoa banatuko zaie. Nola prestatu ere azalduko dute. Untzagako jubilatuen etxean.







**erakusketak**

- Azaroaren 14ra arte  
**"INPRESIOAK"** (euskal artisten obra grafikoa).  
 Luis Candaudap, Marta Cárdenas, Alfonso Gortazar, Gonzalo Jauregi, Juan Mieg, Esperanza Zabala, Jose Antonio Azpilikueta, Damaris Pan, Amagoia Ruiz, Jorge García, Fernando de Vicente, Imanol Larrinaga eta Imanol Marrodán. *Portalean.*
- JUAN ANTONIO PALACIOS** en "Kaian" argazki erakusketa. *Debako Turismo Bulegoan.*
- Azaroaren 18ra arte  
**IBAIALDE**, gure ibaiari buruzko erakusketa ibiltaria. *Udaletxean (patioan).*
- Azaroaren 21era arte  
**INDALEZIO OJANGUREN XXIII.** Argazki Lehiaketan saritutako argazki erakusketa. *Portalean.*
- M<sup>a</sup> CARMEN PIRIZ** en margo abstraktuen erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*
- Azaroaren 28ra arte  
**ESTHER GALARZA** ren zeramika lanen erakusketa. *Durangoko Arte eta Historia Museoa.*
- Azaroaren 30era arte  
**ARGAZKILARITZA IKASTAROA** ren erakusketa. *Portaleko tabernan.*
- CARLES VERDÚ I PRATS** en "Vietnam del Norte" argazki-erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- AGRUPACIÓN FOTOGRÁFICA TALLERS D'ARTS I OFICIS DE BERGA P25** ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- HERRI KIROLLEN** inguruko erakusketa. *El Corte Inglés-ean.*

**farmaziak**

- 12, barixakua**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 13, zapatua**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 14, domeka**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 15, astelehena**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 16, martitzena**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 17, eguaztena**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 18, eguena**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 19, barixakua**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
 GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**sarrerak salgai**

- DONOSTIAKO UDAL TXISTULARIEN KONTZERTUA:**  
 Azaroak 12. 20.30etan.
- DANTZA "Aire de corte":**  
 Azaroak 26. 20.30etan.
- ANTZERKIA "Tres somos tres":**  
 Azaroak 27. 17.00etan.

**SUDOKUA**

7		3	4				6	9
8				7	3			
			6					5
	7					6		1
	1						3	
3		4					9	
4				2				
			8	6				3
2	3				1	7		8

**DENBORAPASAK**

6	2	3	4	7	5	1	9	0
9	4	1	8	2	3	6	5	7
7	5	8	6	1	0	3	2	4
2	7	0	9	0	1	4	3	5
1	9	5	3	4	6	8	7	2
3	8	4	7	5	2	0	6	1
4	3	7	2	9	0	5	1	6
8	1	9	5	6	7	2	4	3
5	6	2	1	3	4	7	8	0

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. 23.500.000 pta. Tel. 659-687736.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo Bergaran. Tel. 663-451436.

– Logela alokagai. Komun propioarekin eta sukaldia erabilitzeko eskubidearekin. Berogailua. 350 euro. Tel. 605-908924.

– Logela alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 657-779628. Alazne.

– Pisu berriztatua alokagai Mutri-kun. 3 logela, komun bi eta terraza. Kalefakzioa. Tel. 943-201294 edo ta 645-728317.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Honda Civic autoa salgai. 115cv. 120.000 km. Egoera onian, beti garajian. Extra guztiekin. Tel. 656-416597.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldia eta komunarekin. Tel. 669-293427.

– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai, 7 metroko trastelekuarekin, San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308.

– Musika talde batek lokala alokatu nahi du. Berdin dio beste batzuekin partekatzea. Tel. 645-722611. Gaizka.

– 1. solairua alokagai Bidebarrieta 23an. Tel. 609-918803.

– 33 m<sup>2</sup>ko lokala (komuna eta duxarekin) alokagai Ibarkurutze 4ko 1. solairuan. Tel. 636-209131.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 678-972690.

– Neska eskaintzen da lan egiteko arratsaldetan eta asteburuetan. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-617818.

– Edozein motatako leihoak eta pertsiak konpontzen dira. Tel. 670-428966.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 634-190979.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 635-187901.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 669-068439.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 673-875123.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 665-156946. Maria.

– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia lan bietan. Tel. 943-175420 eta 696-399510.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxea garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-471270.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-709438.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. Esperientzia. Tel. 617-567336.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaearak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-786976.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 659-731324.

### 4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Hobe euskeraz badaki. Tel. 943-208439.

– Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.

– Masajista behar da, esperientziarekin. Tel. 943-530066.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Magisteritza eta Pedagogia tituludunak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu, ikaslearen etxera joateko aukerarekin. Tel. 606-257620.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Lababoa salgai, armairua eta ispi-larekin. Baita bainuontzi txiki baten manpara. Tel. 628-699910.

– Sofa-oheta salgai. Egoera onean. Gutxi erabili. 150 euro. Tel. 620-559606.

– Ordenagailuarentzako egurrezko mahaia salgai, erroberekin eta CPU sartzeko lekuarekin. Tel. 665-749027.

– Paseorako silla salgai. Jane Nomad markakoa eta urdin marinoan, egoera oneko itsas-zakua eta burbuilarekin. 100 euro. Tel. 620-720953.

azaroaren

19<sup>an</sup>

GO-GO GATA  
ETA OPARIAK

*Gironik  
onenean*


**Eskerrik asko  
EIBARTARROI**

**9.  
urteurrenean**

Calbeton, 6

**Kosker**

## Hortzordeekin arazoak?



### Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



### Goiko aldeko inplanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

*Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.*

**Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.**

*Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!*

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR [www.esteticadelasonrisa.com](http://www.esteticadelasonrisa.com)



Andoni Guisasola Ron Dokorea  
R.P.S. 156/5

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**Estaziño kalea, 8  
Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7  
Tel. 943 70 23 84**

**Jaka**  
**Ezkarai**  
eta inguruak



ERAIKUNTZA  
BERRIKO  
ETXEBIZITZEN  
SALMENTA  
JAKA,  
EZKARAI  
ETA  
INGURUETAN



**EUKI**

T. Etxebarria, 1 - behea  
Tel. 943 20 03 58

**FINKAK**

[fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)